

IPUINEN AZTERKETA, GOMENDIOA ETA LANKETA GENERO IKUSPEGITIK

GRADU AMAIERAKO LANA

GRADUA: Haur Hezkuntzako gradua

MINORRA: Irakurzaletasuna eta liburutegiak

EGILEA: Arrondo Aizpuru, Irene

ZUZENDARIA: Alvarez Uria, Amaia

2020

LABURPENA

Jarraian datozen orrialdeetan “generoa haur hezkuntzan” gaiari oinarritutako Haur Hezkuntzako Gradu Amaierako Lana dago irakurgai.

Azken urteetan eskoletan berdintasunaren eta hezkidetzaren lanketak garrantzi handia hartu duen gaia izan da, gizarteko ikuspuntua eraldatzeko modu eraginkorra izan daitekeelako umeei gai hau jorratzea. Sexismoa kalean ikusten dute haurrek, baita telebistan, marrazki bizidunetan eta, nola ez, ipuinetan ere, gizartea sexista izan delako eta, eraldaketa prozesu batean gauden arren, oraindik ere horrelaxe delako. Orain ikuspegi hori aldatzeko ekintza ugari daude martxan eta bide horri segituz burutu da lan hau. Zehazki haur ipuinetara bideratu da, gaiaren inguruan gehiago jakin eta Haur Hezkuntzako irakasle izaten naizenerako prestatuago egoteko.

Lan honetan hezkidetzaren alde egiteko, Gabiriako herri liburutegiko ipuinak aztertu dira, ipuin hezkidetzaillei eta sexisten inguruko informazioa bilduz bibliografia sortu da eta informazio hau guztia izanik haurrentzako hogeit hamar ipuin hezkidetzaille erosi dira, liburutegian genero berdintasunaren alde egiteko. Ondoren ipuin horien aurkezpenerako eta lanketarako umeentzako saio bereziak antolatu dira beraiekin genero berdintasunaren gaia lantzeko liburutegian bertan. Lan honetan zehatz-mehatz azalduko da prozesu guztia, bizitako sentipen, emozio eta gertaeren kontaketeekin batera. Amaieran guztia borobiltzeko emaitzetan eta ondorioetan sakonki azalduko da prozesuan zehar gertatutako guztia, lanari amaiera emateko.

Hitz gakoak: Ipuin sexistak, ipuin hezkidetzailleak, genero berdintasuna, herri liburutegia, Ikaskuntza-Zerbitzua.

AURKIBIDEA

1- JUSTIFIKAZIOA.....	4
2- MARKO TEORIKOA.....	5
2.1- Sexu/Generoaren inguruko kontzeptuak.....	5
2.2- Ipuinen garrantzia.....	7
2.3- Generoak haur literaturan duen eragina.....	8
2.4- Zer erakusten dute ipuin tradizionalek?.....	8
2.4.1- Estereotipo sexista ohikoenak ipuinetan.....	9
2.4.2- Pertsonaien ezaugarriak ipuinetan.....	9
2.4.3- Ilustrazioak ipuinetan.....	10
2.4.3.1- Liburuetan aztertu beharreko sinboloak.....	11
2.5- Zer erakusten dute ipuin hezkidetzailleek?.....	12
2.6- Zer egin ipuin sexisten aurrean?.....	14
2.6.1- Helduek haurrei emandako irakurgaiak.....	14
2.6.2- Ipuin tradizionalak erakutsi eta beraiekin jolastu.....	14
2.6.3- Liburutegietara hezkidetzarako ipuin berriak sartu.....	15
2.6.4- Jarduera desberdinak egin.....	16
2.6.4.1- Itsaspeko bihotzak.....	16
2.6.4.2- Haur antzerkia eta dramatizazio jolasak.....	17
3- METODOA.....	19
3.1- Testuingurua eta partaideak.....	19
3.2- Prozedura.....	20
3.3- Tresnak.....	23
3.4- Ikaskuntza zerbitzua.....	24
3.5- Helburuak.....	25
4- PROPOSAMENA.....	26
4.1- Ipuinen aurkezpen jarduera.....	27
4.2- Ipuinen irakurketa.....	29
4.3- Antzerkiaren lanketa.....	29

5- EMAITZAK.....	30
6- ONDORIOAK.....	35
6.1- Lanaren ondorioak.....	35
6.2- Ondorio orokorrak.....	36
7- ETORKIZUNERA BEGIRAKO OHARRAK.....	37
8- BIBLIOGRAFIA.....	38
9- ERANSKINAK.....	43
I.Eranskina: Herriko liburutegia.....	43
II.Eranskina: Liburutegia aztertze behaketa-fitxa.....	44
II.I: Liburutegia aztertze lehenengo fitxa.....	44
II.II: Liburutegia aztertze II.fitxa.....	46
III.Eranskina: “Zure gustuko ipuina” jarduera.....	57
IV.Eranskina: Haurrentzat aukeratutako 20 ipuinak.....	58
V.Eranskina: Eskatutako liburu guztien zerrenda.....	78
VI.Eranskina: Guraso eta herritarrentzat oharra.....	80
VII.Eranskina: Ipuinak familiaka banatuta.....	80
VIII.Eranskina: Egunerokoa.....	81

1- JUSTIFIKAZIOA

Azken urteetan hezkidetzaren eta berdintasunaren inguruko kontzientzia handitzen ari dela argi badago ere, oraindik lan handia dago egiteke gizarte honetan. Kontzientziatu eta guraso, irakasle zein arduradunen bateratzea falta da, guztien artean ikasleei eta gizarteari lagundu ahal izateko. Rol eta estereotipoak nabarmenak dira Haur Hezkuntzan, umeei txiki-txikitatik ikasi eta oso barneratuta dituztelako, eskolan ikasteaz gain, etxean eta inguruan ikusten eta entzuten dutena barneratzen dutelako eta askotan ikuspuntu horrek gizon zein emakumeen artean ezberdintasunak dakartza. Hezkuntzan gizartearen islatzen dela argi dago, beraz lan handia izanda ere, hezkuntzaz baliatuz gizartearen aldatzea ahalbidetu daiteke.

Behinola sei hilabetekarian (2015) Victoria Fernándezek dio gaur egun ezin dela esan neskatalak gutxiengo direnik haur literaturan. Geroz eta gehiago dira emakumezko protagonistak haurrentzako liburuetan, zalantzarik gabe “zuzentasun politikoaren” eskakizunez eta sexuen arteko berdintasunaren aldeko mugimenduen etengabeko presioagatik. Horrek ez du esan nahi dagoeneko aurrekoa gainditu duen emakumezko eredu berria dagoenik eta are gutxiago gizonezko eredu berririk, orain eredu horiek “eraikitze” fasean gaudelako, baina bai nabaria dela Haur eta Gazte Literaturako (HGL) emakumezkoen presentzia askoz garrantzitsuagoa dela orain dela urte batzuk baino.

Ipuinetako emakumezkoen presentzia handitzea aprobetxatuz, hezkidetzako ipuinak aukeratu eta liburutegi batera bertaritzen diren herriko umeak genero berdintasunean hezteko oso baliagarria izan daiteke lan hau. Hamar orduz ume hauekin berdintasuna lantzeko jarduerak egiteaz gain, aurrera begira liburutegia ipuin egokiz betetzeko saiakera egingo delako eta horrelako ekintzetatik hasten delako apurka pertsonen bizitza eta ikuspegia aldatzen. Hau honela, haurrak txikiak izanik ere kritikotasuna lantzerantz bideratuko dira eta bide batez haur hauek txiki-txikitatik literatura eta irakurketa mundura gerturatzeko saiakera egingo da.

2- MARKO TEORIKOA

Hasteko Sexu/Genero sistemaren inguruko oinarrizko kontzeptu batzuk definituko dira, ondoren datorrena bere osotasunean ulertu ahal izateko eta erabiliko diren hitzen atzean dagoena argitzeko.

2.1- Sexu/Generoaren inguruko kontzeptuak

- **Sexismoa**

Sexismoak gizonen boterea eta emakumeen mendekotasuna bultzatzen ditu. Emakumeenganako mespretxua eta gutxiespena adierazten ditu bai hitzez eta baita ekintzen bidez ere, betiere gizonezkoak emakumezkoen gainetik gailenduz (Alvarez-Uria, 2013). Betidanik egon izan den arren, gure lana da sexismoarekin apurtzea eta gizonezko nahiz emakumezkoen berdintasunera iristea. Horretarako kontzientziatu, elkartu eta bakoitza bere ingurune txikitik hasi behar da hutsune, indiferentzia, jarrera eta iruzkin horiek gelditzen edo aldatzen, oso errotuta dagoelako pertsona askoren buruetan nahiz gizartean bertan.

- **Androzentrismoa**

Androzentrismoa emakumeak baztertzeko eta isilarazteko historian zehar hartu izan den jarrera da. Honen bidez, gizona unibertsoaren eta diskurtsoaren zentroan dagoela adierazi izan da, begirada berarengan zentratzeko. Neurri honen arabera egin izan da humanitatearen irudikapen globala, emakumezkoen errealitatea baztertuz (Alvarez-Uria, 2013). Historian zehar emakumeen rola gutxieteko eta hauen arrakasta apaltzeko erabili izan da eta honetaz ohartzea oso garrantzitsua da, emakumeak indartu eta beraiek ere unibertso eta diskurtso horretan garrantzitsuak eta beharrezkoak direla adierazteko.

- **Sexua**

New York Academy of Sciences elkarteak argitaraturiko idatzi batean, Anne Fausto-Sterlingek idatzitako *“the five sexes revised”* artikuluan esaten denez, alua eta zakila, emea eta arra, emakumea eta gizona, bi sexuen sistema ez da egokia giza sexualitatearen “spectrum” guztia erakusteko, gorputzak ere anitzak dira eta. Beraz, bost sexuen sistema proposatu zuen egile honek probokatzeko asmoarekin: male, female, herms, merms, ferms. Honekin batera, intersexualitateak erakutsi digu, egilearen arabera, sexu organoak ez direla binarioak eta hor ere aniztasuna dagoela (Fausto-Sterling, 1993).

Hau argi uztea garrantzitsua da, bi sexu mota bakarrik ez daudela jakiteko eta gizarteari honen inguruan pentsatzera bultzatzeko, oraindik ere ideia zaharkituek jarraitzen dutelako eta pertsona asko mindu daitezkeelako, ingurukoek kontzeptuak argi ez izateagatik eta desberdina dena gutxiesteagatik.

- **Generoa**

Sexuaren maila anatomiko eta fisiologikoen esangura soziala da generoa. Gizon eta emakumeei desberdin egotzitako eta sozializazioaren bidez barneratutako rol, identitate eta balioen definizio historiko-soziala da. Hau da, rol sozial, lan, itxaropen, portaera eta balio zehatzak esleitzen dira eraikuntza kultural horren arabera, gizon ala emakume izendatzean ezberdin eta botere harreman baten baitan (Alvarez-Uria, 2013). Generoari atxikitutako kontzeptu gehiago ere adierazita daude jarraian.

- **Genero rolak**

Genero rolak emakume zein gizonezkoen posizio sozialaren arabekoak izaten dira, gizonak menderatzaile eta emakumeak menderatu. Emakumezko edota gizonezkoen sozialki legitimaturiko funtzio, jarrera, ahalmen eta muga batzuk finkatu eta egokitzen zaizkie eta neutralizaturik geratzen dira (Fernández, 2012 IN Artieda, 2015). Gaur egun pentsamendu hau apur bat aldatu bada ere, oso errotuta daude genero rolak munduko pertsona bakoitzean eta gizarteak finkaturiko horretatik aldentzen dena arrarotzat eta zigortzeko modukotzat hartzen da oraindik ere.

- **Genero estereotipoak**

Giza talde edo kolektibo espezifikoko batekiko pentsamendu zurruna eta sinplifikatuaren irudikaopena da hau. Ditugun datuen erabilera desegokiagatik gertatzen dira, ezjakintasunaren ondorioz, eta sarritan erabiliz, globalki pentsamendu hori onartu eta finkatu egiten da, estereotipoa sortuz (Fernández, 2012 IN Artieda, 2015).

Genero estereotipoa beraz, emakume edo gizon izateagatik pertsona baten inguruan egiten dugun orokortzea da. Estereotipo ugari daude gure gizartean kulturaren errota daudenak, eta hauek arketipo bihurtzen dira (Ros, 2012).

Genero estereotipoak zer diren jakitea eta identifikatzen jakitea oso garrantzitsua izango da, zer aldatu behar dugun jakin ahal izateko. Guztiok ditugu buruan errota eta landu egin behar dira, gizartean pentsamendu hauek kontzienteki zein inkontzienteki ez transmititzeko.

- **Hezkidetza**

Gai honetan aditua den Marina Subiratsek esaten duenaren arabera, hezkidetza mutil eta nesken hezkuntza ulertzeko modua da. Honen alde egon direnak, emakume zein gizonezkoak elkarrekin hezi eta hezkuntza bera eman behar zaiela defendatu izan dute, historian zehar kontrako ikuspuntu asko egon diren arren.

Gaur egun eskola mistoak ditugu eta emakumeentzako aurrera pausoak lortu diren arren, egungo gizartea oraindik ez da berdintasun sozialera iritsi. Beraz, eskola mistoetan oraindik ere diskriminazio sexista transmititzen dela ondorioztatu daiteke eta hau aldatzeko ekintzak egin behar direla (Subirats, 1994).

Hezkidetzak beraz, sexista ez den hezkuntza dakar eta honen aldeko apustua eginda, oraindik egiteke dagoen lan asko egon arren, gizarteak sexuaren arabera egin izan dituen rol banaketak alde batera utzi eta gizarte berdinezale bat izatera iritsiko gara. Aurretik azaldutako kontzeptuak birplanteatu eta landuz, helburu honetara, hau da, hezkidetzara iritsi nahi da.

2.2- Ipuinen garrantzia

Behin oinarritzko kontzeptuak ongi ulertuta, ipuinen garrantzia jakinaraztea beharrezkoa da. Izan ere, haur literaturak moralki, kognitiboki eta afektiboki umeen kontzientzia garatzen laguntzen du. Literaturak, hurrei mundua ulertzen ikastea ahalbidetzen die (Ros, 2012). Urtxintxa eskolak (2016) ateratako *Ipuinak ez sexistak izateko gidan* esaten duenez umeak txiki-txikiak direnetik, heziketarako baliabide ezin hobea eskaintzen dute ipuinek. Hauen bidez, umeen mundu sinbolikoa osatzen joaten da eta beraien irudimena eta errealitaterako hurbilketa garatzeko balio dute. Amets egiteaz eta gozatzeaz gain, hainbat ikasketa barneratzen dituzte, helburu didaktikoa eta arlo literarioa uztartuta baitaude.

Nahiz eta garrantzitsua den jakitea literaturak haurren garapenean duen eragina ezin dela beste gizarteratze-agente batzuekin konparatu: familia, eskola edo komunikabide masiboak, adituen ikuspegia aztertzea komenigarria da. Emakunderen *Cuentos infantiles y roles de género* aldizkariko *Haur literaturako rolak eta gizarte eredu berriak* atalean Julen Gabiriak esan moduan, psikologia ebolutiboaren arloko adituek argi uzten dute literaturak uste duguna baino garrantzi handiagoa izan dezakeela haurren gizarteratze prozesuan. (Gabiria, 2009).

2.3- Generoak haur literaturan duen eragina

Haur literaturan izugarritzko garrantzia du generoak, izan ere, literaturaren bidez hainbat rol helarazi daitezke, eta umeei dena xurgatzen dute (Colomer, 2010). Esther Rosek (2012) argitaratutako *El cuento infantil como herramienta socializadora de género* artikuluan esaten denez, arketipoek eta mitoei, gizarte androzentriko eta patriarkala eratu izan dute eta honekin batera emakume zein gizonezkoek zer egin, nola portatu eta beraien ezaugarriak ezarri izan dira, bestelako eredu batzuk baztertzuz (Schaffer eta Kipp, 2007 in Ros, 2012).

Dolors Masats eta Teresa Creusen ustez (2006) ipuinak komunitate konkretu bateko bizitzako balioak, eginkizunak eta ohiturak kulturalki transmititzeko bitartekariak dira. Umeei 3-4 urterekin badakite duten sexuarekin lotutako beraien rol soziala zein den. Gizakiek jaiotze eta hilaeraren gutxitara zerbaiten parte sentitu behar dute, rol eta giza talde espezifiko batekin identifikatuz. Behar horiek umeei beraien burua definitzeko eta garatzeko oinarrikoak izango dira (Ros, 2012).

Norabide honetan *Behinola* seihilabetekarian Amelia Barquínek dioena aipatzekoa da:

Legeak esango du berdina garelako baina gizartean neskek, kultura-produktuen bidez eta ipuinen bidez ikasten dute emakume moduan apain egotea dagokiela, itxura zaintzea, eta haien bizitzari zentzua emango dion bikotekidearen zain egotea (2015:18).

2.4- Zer erakusten dute ipuin tradizionalak?

Ipuin tradizionalak ezaugarri sexista, klasista zein arrazistadun estereotipoak erakusten dituzte, mendebaldeko kultura diskriminatzailea izan delako denbora luzean. Ipuinek baloreak zein aurreiritziak transmititzen dituzte. Ipuin tradizionalak estereotipoak eta aurreiritziak jendartean izaten jarraitzen lagundu dute, irakurleek pertsonaiak imitatzen dituztelako (Márquez, 2017).

Hala ere, Ortizen hitzetan: “*Sexismoa norabide batera edo bestera eman daiteke, hau da, pertsonaia femenino zein maskulinoetan, kasu gehienetan kaltetuenak pertsonaia femeninoak izaten diren arren*” (2015:20). Honekin argi utzi nahi dena da, nahiz eta emakume pertsonaien falta edo presentzia estereotipatua izan den, pertsonaia maskulinoek ere kalteak jasan dituztela. Mutiko guztiak, nahiz eta boteretsuak izan emakumeen aldean,

ez direlako indartsuak, abentura zaleak edota printze urdinak. Beraz bi aldetatik izan daitezke ikasleak kaltetuak.

Genero identitate maskulinoa eta femeninoa eta beraien rolak alderatuta ateratzen den konklusioa, rol eta estereotipo tipifikatuak erakusten dituztela da, gizarte patriarkal tradizionalari dagozkionak (Rebolledo, 2009).

2.4.1- Estereotipo sexista ohikoenak ipuinetan

- Genero maskulinoa: independentzia, agresibitatea, indarra, ausardia, kultura eta arrazionaltasuna ditu. Beti borrokatu, salbatu eta bidaiatu egiten dute. Kalean agertzen dira. Gizarte patriarkaletan gizonezkoaren papera maskulinoa irudikatu behar izaten da, gizentasuna erakusteko eta paper hau hartzen ez duten gizonezkoek zigor gogorrak jasotzen dituzte (Márquez, 2017:13).
- Genero femeninoa: Dependentsia, pasibotasuna, emozionala, beldurra, ahultasuna, afektibitatea eta intuizioa ditu. Etxean agertzen da. Beti zain egoten dira, josi, garbitu eta negar egiten dute (Sanchez in Rubió, 2014:10).

2.4.2- Pertsonaien ezaugarriak ipuinetan

Ferreiraren arabera, pertsonaiak aztertzerako momentuan garrantzitsua da burutzen dituzten funtzioak, kategoria eta eszenan sartzeko modua aztertzea. Horrez gain, pertsonaia bakoitzak ezaugarri ezberdinak izango ditu ezkutaturik adin, sexu eta itxurari dagokienez (Ferreira, 2017). Egile honek pertsonaia nagusien ezaugarriak sailkatu ditu (ikus 1.taula jarraian).

1.taula: Pertsonaia nagusien ezaugarriak

EMAKUMEZKOAK:
<p><u>Etxeko andrea:</u> politikak, goxoak, delikatuak, behartsuak, inozoak eta intelektualki traketsak izan ohi dira. Esanekoak izaten dira, emozioek gidatzen dituzte, beraien senarrarentzat egiten dute guztia, familia eta etxea zaintzen dute (Márquez, 2017:14). Ama maitakor bat izateaz gain, kalean lan egiten duen senarraren zain egoten dira afaria prest dutela (Colomer, 1994:16).</p>
<p><u>Sorgina:</u> Ezaugarri negatibo asko dituen pertsonaia da. Sorginak eboluzio literarioan zehar “demonizazio” prozesua pairatu zuen. Konnotazio negatiborik gabeko pertsonaia izatetik (emakume jakituna, petrikiloa, botanika ezagutzaduna eta astrologiaz zekiena); emakume zahar, itsusi, erratz magikodun, txapeldun, gaizto eta gaiztakeriak egiten zituen emakume bihurtzera igaro zen. Erdi Aroan kristautasuna eta ideologia patriarkala hasi zenean beraz,</p>

sorginaren ezaugarriak deformatu ziren eta gaur egun arte horrelaxe iritsi zaigu sorginaren irudia. Itsusitasuna gaiztoaren sinonimoa da eta baita independentziarena ere (Ferreira, 2017).

Sorginaren irudian emakumeengan onartu gabeko ezaugarriak ikusi ditzakegu. Marko sozialetik at dauden emakumeak agertzen dira: emakume jakitunak, txukunak eta autoritatez beteak. Patriarkatuan onartzen ez diren emakumeak dira, beraz degradatu egiten dituzte (Rebolledo in Márquez, 2017).

Printzesa: Pertsonaia hau erregearen alaba eta koroaren oinordeko bezala ikusita dago. Esanekoa eta pertsona leiala da (Ferreira, 2017).

Maitagarria: Naturaz gaindiko botere magikodun eta etorkizuna asmatzen duen emakumezko izaki fantastikoa. Izaki bizidunekin harremanak izaten ditu (Ferreira, 2017).

GIZONEZKOAK:

Gizon langilea: Gizarte industrialean lan egiten duen gizonezkoa da. Aberastasuna, jakituria eta botere politikoa ditu: udaleko zinegotzia da, lantegi bateko nagusia, etab. (Colomer, 1994).

Printzea: Printzesa salbatzen du beti, nahiz eta ipuineko protagonista ez izan. Beti abenturazalea da, printzeari “esker” konpontzen da printzesaren arazoa (Rebolledo, 2009).

Aztia: Gaiztoak direnean, emakume gaiztoak baino okerragoak izan ohi dira (García in Márquez, 2017).

2.4.3- Ilustrazioak ipuinetan

Xabier Etxanizek (2007) *Literatura eta ideologia* liburuan esan zuenez “*Haurrentzako liburuetan, zenbat eta txikiagoa izan hartzailea orduan eta pisu handiagoa du ilustrazioak*”. Produktua aztertzerakoan, hitzak eta irudiak aztertu behar dira, biek igortzen dituztelako mezuak eta beraz biak “irakurtzen” ikasi behar dugu. Irudi bat edo testu bat aztertzerakoan, irudian agertzen dena eta agertzen ez dena izan behar dira kontuan. Aizpuruak eta Lasartek ere Etxanizekin bat egiten dute: “*Haur literaturan ilustrazioak duen garrantzia aparta da, eta zenbait kasutan, testua baino sexistagoa da. Izan ere, sexuen arteko rola askoz ere modu*

argiangoan ikusten dira marrazkien bidez, hitzen bidez baino” (Aizpurua eta Lasarte, 2015:48).

2.4.3.1- Liburuetan aztertu beharreko sinboloak

Aipatu berri diren autoreen arabera hurrengo sinboloek erreparatuko diegu ipuin baten hitz eta irudien analisia egiterakoan.

1. Espazioa: Etxe barneko espazioa emakumezkoari dagokio eta kanpokoak gizonezkoari.
2. Animalien identifikazioa: Katua emakumezkoekin lotzen da eta txakurra gizonezkoekin.
“Baina horretaz gainera animalien identifikazio horretan badira bestelako ideiak ere, txakurra fidela eta laguna den bitartean ezaugarri onak gizonezkoekin erlazionatuz; katua (emakumezkoa) traidorea, bakartia, berekoia omen da” (Etxaniz, 2007:40).
3. Amantala, erosketako orgatxoak, umearen kotxetxoak: Zenbait kasutan etxetik at ere amantala eramaten da emetasuna markatzeko, emea bereizteko modua izanik. Gaur egun erosketako orgatxoak edo ume kotxetxoak ere ordezkatzeko du.
4. Eratza, trapuak, garbitzeko tresnak: Etxeko esparrua emakumeekin lotuta agertzen da, batez ere garbiketa eta zaintzarekin lotuz: harrikoa egiten, janaria prestatzen eta umeak zaintzen ikus daitezke.
5. Betaurrekoak: Gizonezkoen kasuan intelektuala izatearekin lotzen da. Neska bada azkarra izateaz gain, itsusia izango da. *“Antza, irudi liburuetan ezinezkoa da betaurrekodun eta polita izatea; neska inteligenteak ez omen dira politikak (eta, ideia horri buelta emanez, neska politikak ezin dira izan azkarrak)”* (Etxaniz, 2007:40).
6. Egunkaria: Normalean gizonezkoek irakurtzen dute egunkaria. Emakumezkoen bat irakurtzen agertzen bada, aldizkariak edo nobelak izango ditu.
7. Kartera edo maletatxoak: Maletatxoak etxetik kanpo lan egitearen sinbolotzat hartzen da. Exekutiboak, irakasleak eta abokatuak ager daitezke maletatxoekin.
8. Leihoa, dorrea: Emakumeekin lotuta, pasibotasuna adierazten du, etxe barneko espazioa, zain egotea, bizitzaren patua, bertan ezin da inizatibarik hartu.

9. Orraziak, ispiluak, lore sortak: Edertasunaren garrantzia agertzen da balore bezala emakumeengan, emakumeak gauza horiengatik kezkatzen direla adierazteko (Turin,1995).

Sinbolo hauen balioa erlatibiza dezakegu, baina egia da haur txikientzako liburuak hartuz gero, nahiko ohikoak direla elementu horiek balio horiekin. Hala ere, aitortu behar da azken urteotan estereotipo hauek apurtzen dituzten hainbat eta hainbat lan ikus daitezkeela gure artean (Etxaniz, 2007).

2.5- Zer erakusten dute ipuin hezkidetzailleek?

Gaur egun sortzen diren ipuin gehienetan beste gai batzuen inguruan hitz egiten da. Balio desberdinak transmititzen saiatzen dira: elkartasuna, ingurumena, besteekiko errespetua edota laguntasuna (Ortiz, 2015). Emakume zein gizonezkoen bereizketa horrekin hautsi eta estereotipo gabeko hezkuntza-sistema bat nahi baldin badugu, hezkidetzak da irtenbidea. Hezkidetzaren funtsa, genero irizpide patriarkalei muzin eginda eta balio feministetan oinarrituta, ikasle guztien parekotasunean oinarritutako hezkuntza sistema baita (Aizpurua eta Lasarte, 2015). Gaurko hezkuntza gizarte tradizionalaren pentsamendua transformatzen ari da, pixkanaka-pixkanaka patriarkaturako joera nagusia genero berdintasun batekin ordezkaturaz (Artieda, 2015).

Hezkuntza sistema eraldaketa hori Haur Hezkuntzako etapatik hasi behar da eta hezkidetzako ipuinak errekurtso ezin hobetzat hartzen dira bai eskolan eta baita familian ere. Familiak kontzientziatu behar dira seme-alabak hezkidetzan hezteko erantzukizuna har dezaten (Artieda, 2015).

Ipuinak ez sexistak izateko gidaren arabera (2016) hezkidetzailleak izan daitezzen aukeratzen ditugun ipuinek ezaugarri hauek izan behar dituzte:

2.taula: Ipuin hezkidetzailleen ezaugarriak:

Sexuari lotutako genero rolak errepikatzen ez dituztenak (ama beti etxekoandrea eta aita beti kanpoan lanean).
--

Genero estereotipoei erantzuten ez dietenak (neskak esanekoak eta zintzoak dira eta mutilak ausartak eta indartsuak dira).
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituztenak, ez diskriminatzaileak edo bereizleak, hau da, balore positibo guztiak (generoa kontuan hartu gabe).
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen dutenak.
Jendarte berdintasunera bultzatzen dutenak. Pertsona guztientzako aukera berdintasuna bultzatuz, jendarte justuagoa bilakatzeko.
Pertsona moduan, gaitasun anitzak bultzatuz, osotasunean garatzen laguntzen dutenak.
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituztenak.

Ipuin ez sexistak izateko gidarekin (2016) jarraituz, gaur egun idazten diren ipuinetan estereotipo eta rol tradizionalak agertzen dira oraindik behin eta berriro. Hala ere, idazle batzuk, pertsonaia eta gertaeren bidez beste eredu eta errealitate batzuk erakusten saiatzen dira, gizartean ematen ari diren aldaketei egokituak, familia eredu berriak, umeengan eragin zuzena duten arazoak: gurasoen banaketa, heriotza, desira, beldurrak... Eredu berri hauetan neskek eta mutilek bere sexuagatik gizarteak esleitu dizkien paper tradizionalak gainditzen dituzte, pertsona eredu berri bat sortzeko ahaleginetan.

Cuentos infantiles y roles de género artikuluan Emakunderen aldizkarian (2009) argitaletxe euskaldunetako editoreek diotenez, gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio ipuin ez sexistak argitaratzeari. Duela 15 bat urte inguru hasi ziren gai honi erreparatuz. Tarttalo argitaletxeko Itziar Irastorza editoreak dio:

Baloreetan hezteko liburuak argitaratzea da gure lehentasuna eta bultzatzen dugun balore horien artean, genero berdintasuna ere kontuan hartzen dugu, noski. Liburuak argitaratzean sexistatzat jotzen diren testuak, jokaerak, mezuak edo irudiak antzematen badira, materiala zuzenean baztertzen da. Aspektu literarioez gain, marrazkiak ederrak diren ala ez, istorioak erakargarriak eta estiloz ondo kokatuta dauden, giza eskubideak errespetatzen diren eta arraza edo sexu diskriminaziorik dagoen begiratzen da (2009: 27).

Oso garrantzitsua da haurrak berdintasunean heztea eta literatura beharrezkoa izango da horretarako. Esaten dutenez gero eta idazle emakume gehiago dago, eta baita irakurle eta protagonista emakume gehiago ere. *“Aldaketak gizartearekin batera paraleloki gertatzen joan dira, azken finean literatura gizartearen ispilu bat baita”* (Irastortza, 2009: 26).

2.6- Zer egin ipuin sexisten aurrean?

2.6.1- Helduek haurrei emandako irakurgaiak

Behinola-n (2015) adierazten den moduan, aldez aurretik seme-alabek eta ikasleek irakurtzen dituzten liburuak irakurri beharko lirateke, horrela mezu ideologikoak harrapatu eta eurekin komentatzeko aukera sortuko litzatekeelako. Irakurketa kritikoa egitea modu ederra da sentibilizatzeko eta askatasuna partekatzeko zein estereotipoen aurrean barre egiteko. Hitz egiteko akuilu egokiak dira, eztabaida sortzeko ahalmena piztu dezaketelako eta horrez gain Disneyrekiko maitasuna deseraiki eta zalantzan jarri (Agiriano, 2015).

2.6.2- Ipuin tradizionalak erakutsi eta beraiekin jolastu

Etxanizen arabera, *“Gure asmoa gizarte aurrerakoia, demokratikoa eta parte hartzailea bada, sexismoaren eta indarkeriaren aurkakoa, xenofobia eta ezberdintasun sozialak baztertzen duen gizartea, orduan hurrengo belaunaldiak kritikoa izan daitezen borrokatu behar dugu”* (Etxaniz, 2007:54). Inoiz ezin da pentsatu haurren liburuak inozenteak, politak, entretenigarriak eta dibertigarriak besterik ez direla, testu guztiek ideia eta balore batzuk transmititzen baitituzte. Adi egon beharko da obra bakoitzaren atzean ezkututzen diren mezuen aurrean.

Hezkuntzaren bidez neska eta mutilen arteko berdintasuna lortu daiteke eta genero-indarkeria saihestu daiteke. Horretarako kanpaina bat dago, *“Berdintasunean heztea”* izenekoa (2015). Luz Martínez Ten kanpaina honen barruan dago eta hauexek dira bere hitzak:

Ezin ditugu ipuin tradizionalak baztertu, gure kulturaren parte baitira eta ez ditugu erreko. Analizatu egin behar dira eta ongi dagoena eta ez dagoena zer den jakin. Hoberena inertziarekin apurtzea litzateke, ipuinaren elementu magikoa kendu gabe. Pertsonaiekin jolastu ahal eta behar dugu, hausnartu, esperimendu eta emakume zein gizonezkoen papera aztertu (in Ortiz, 2015:23-24).

Beraz helburua ez da ipuin sexistak botatzea edo baztertzea, material didaktiko moduan erabiltzea edo ikuspegi kritikoz irakurtzea baizik. Haurrekin amaierak aldatzera

jolastu daiteke, rolak aldatzera, pertsonaien azalean jartzera, etab. Ipuin sexisten trama aldatu eta egoera berriak asmatuko dira, ipuin originalaren zatiak gordez, baina estereotipo sexistak apurtuz edo auzitan jarriz (Rebolledo, 2009).

Ipuin zaharren eta berrien arteko banaketa egiteak ardura dakar askotan, ipuin berri guztiek parekidetasuna eta aniztasuna kontuan hartzen dutela uste dugulako eta zaharrek ez digutela balio. Une honetan hala ere denetik dago: batetik balio batzuk transmititzeko ahalegin handia sumatzen da liburu batzuetan, bestetik liburu batzuk oso egokiak eta erakargarriak dira literarioki eta balioen aldetik eta bada beste korrante bat marketingari oso lotuta dagoena (Guillo, 2015).

Gaurko irakasleek genero berdintasunaren inguruko formazio eta kontzientzia beharko dute, modu horretan ikasleei transmititzeko. Irakasleek genero berdintasuna barneratuz gero, errazagoa izango da baloreetan eta hezkidetzan heztea (Artieda, 2015).

Andaluziako Juntak sortutako *El alma de los cuentos* (2013) txostenean ipuin bat berriro asmatzeko irizpideak agertzen dira:

3.taula: Ipuin bat berriro asmatzeko irizpideak

Ekintza gertatzen den espazioaren aldaketa
Istorioan pertsonaia berriak sartu edo lehendik zeudenei ezaugarriak alderantzikatu
Pertsonaiek dituzten objektuak aldatu, kendu edo gehitu
Hizkuntzaren erregistroan aldaketak egin
Pertsonaiei egokitutako papera, ekintzak edo izateko era aldatu
Istorioaren ordenan aldaketak egin
Ipuina aldatu edo alderantziz birsortu

2.6.3- Liburutegietara hezkidetzarako ipuin berriak sartu

Liburutegi baterako hezkidetzako liburuak erosi nahi badira, lehenik eta behin aukeraketa espezifikoa egin beharko da. Kalitatezko literatura aukeratu beharko da, haurrei azterna uzteko eta pertsona bezala hezten laguntzeko, adibidez, identitate berriak lantzeko. Kalitatezko literatura izateaz gain, genero berdintasuna erakutsi beharko dute, estereotipoetan jausi gabe eta emakumeen ezaugarriak zainduz. Horregatik arreta berezia

eskaini beharko zaio ipuinen aukeraketari. Liburutegian lehendik zeuden ipuinen genero asimetrica ez horren handia izateko, protagonistak emakumeak diren liburuak aukeratzea gomendatzen da. Azkenik irakasleen, liburuzainen edo gurasoen formakuntza ere beharrezkoa izango da, ipuin ez sexistak izanik eta irakasleen formakuntza gabe, alferrikako lana izango litzatekeelako (Lasarte eta Hernandez, 2017).

2.6.4- Jarduera desberdinak egin

2.6.4.1- Itsaspeko bihotzak

Galtzagorrik antolatzen duen areto literario edo liburutegi mugikorra da eta eskatzen duten herrietara eramaten dute. Proposamen berritzailea da, haur literatura eta generoa uztartzen dituen eta haurrentzat den arren guraso, eskola eta formazioan interesaturik daudenak bertaratu daitezke. Emakumeen ikusgarritasuna egiten da haur literaturaren bitartez eta kontuan hartzen dira estereotipoak eta figura femeninoari nahiz maskulinoari atxikitzen zaizkion ezaugarriak. Bost espazioz osaturik dago eta espazio horietan haurrek ipuinen bitartez nabigatzen dute, pertsonaiekin igeri egiten dute, musika eta ipuinak entzuten dituzte, jolastu egiten dute, idatzi, hausnartu, ilustrazioak ikusi, marraztu eta ongi pasatzen dute. 20-25 haur badaude denek hitz egin eta parte har dezaten saiatzen dira dinamizatzailerak.

Itsasargitik hasiko da bidaia. Bidaiaren inguruko informazioa jasoko dute hurrek lehenik eta behin giroan sartuko dira. Bidaia guztia itsaspean izango dela adieraziko dute dinamizatzailerak eta lasaitasunez inguraturiko atmosferan sartuko dira guztiak. Arrain formako kuxin bana banatuko zaie ikasleei, bidaia eta esperientzian zehar lagunduko diena.

Bost txokoak eta jarduerak azalduko dira jarraian.

1- Itsaspekoaren txokoa:

- a) Adela Turinen *Arrosa eta leuna* ipuina kontatuko zaie, elefanteen koloreen inguruan galdetuko da eta ipuinaren amaiera aldatuko dute guztien artean.
- b) Gorputz mota desberdinak landuko dira. Batere estereotipatu gabeko hiru itsaspekariren figurak daude eta jantzi egin beharko dira, neskek edo mutilak diren ez dakiten arren. Generoa lantzeko aprobeztatuko da.

2- Lanbideen txokoa: *Norak suhiltzaile izan nahi du* ipuina kontatuko da eta handiak egiten direnean zer izan nahi duten galdetuko zaie. Itsaspean nahi dutena izan daitezkeelako.

3- Sukaldearen txokoa: Jostailuzko sukaldea egongo da, mahaia jarrita, txokoa girotzeko. Asmakizunak landuko dira: nola josten da botoi bat, nola egiten da bizkotxo bat, triste zaudenean zer egiten duten eta abar landuko da. Zainketaren gaia aterako da.

4- Sentimenduen txokoa: Txoko ilunago eta lasaiago batera iritsiko dira. Kuxinak hartu eta eseri egingo dira. Beraien sentimenduen inguruan hitz egiteaz gain *Kezkamuxelak* ipuina irakurriko du dinamizatzailerak.

5- Zinemaren txokoa: *Basoak sekretu bat du* ipuina entzungo dute eta protagonistak zergatik haserretzen diren galdetuko zaie. Elena Odriozolaren ilustrazioak hartu eta maitasun desberdinen inguruan hitz egingo dute.

6- Altxorraren txokoa: Bidaia amaitutakoan altxorraren txokora iritsiko dira. Altxorra bihotz formako liburutegi txiki bat izango da eta bertan 60-80 ipuin ez sexista edo hezkidetzailerak egongo dira eta azken minutuetan ipuin hauek aztertu ahal izango dituzte (Lasarte eta Hernandez, 2017).

2.6.4.2- Haur antzerkia eta dramatizazio jolasak

Umekin antzerkia lantzearen helburu garrantzitsuenetako bat beraiei espresatzeko eta komunikatzeko teknikak eta bitartekoak ematea da. Horrela beraien buruekiko, besteekiko eta inguruarekiko ezagutzak lortzen dituzte.

Antzerkia malgua da, ez dagoelako antzerki mota bakarra eta talde bakoitzaren egoeraren arabera oso moldagarria izan daiteke. Antzezpenak edo dramatizazioak oso motzak izan daitezke, karakterizazio gutxirekin, testu sinpleekin eta bat-batean asmatutakoak, edota entseatutakoak eta gelan labur eta informalago egindakoak. Gehiago ikasitakoak, mozorroekin, testu konplexuagoekin, eszenografiarekin eta amaierako ikus-entzuledun antzezpen formalagoak ere egin daitezke (Pérez, 2018).

Antzerkiaren teknikak azken ikuskizuna prestatzen den bitartean lantzen dira:

1. Gorputz adierazpena: haurrek beraien gorputza eta identitatea ezagutzen dute gorputzaren bidez emozioak eta sentimenduak adieraziz.

2. Mimika: gorputzaren eta aurpegiaren bitartez egoerak, objektuak eta soinuak irudikatzen ikasten dute.
3. Hitzezko adierazpena: ahots garapena, ahoskatzea, hiztegia eta lexikoa lantzeko ekintzak burutzen dira.
4. Erlaxazioa: arnasketa gaitasunak garatzen dira hurrek kontzentrazio hobea izatea eta espresatzeko momentuan eroso sentitzea ahalbidetuz (Renault, Renault eta Vialaret, 1994 IN Pérez, 2018).

Azken ikuskizunari dagokionez, aipatutako teknikaz gain beste hainbat ikaskuntza garatzen dira. Beste pertsonaia baten azalean jarriko dira, lotsa gaindituko dute eta ikusleengan nahiz taldekideengan duten erantzukizuna ikusiko dute hurrek. Antzerkian batak bestearen beharra izaten du, talde lana delako eta hori ikastea ere oso polita eta garrantzitsua da antzerkiaren munduan.

Hau guztia aurrera eramateko beharrezkoa izango da irakasleak antzerkiarekiko motibazioa eta gogoia erakustea, honela hurrei transmitituko dielako (Renault, Renault eta Vialaret, 1994 IN Pérez, 2018).

Teresa de Lauretis feministak dioenez, zinema, telebista eta antzerkia generoa transmititzen duten dispositiboak dira eta berdintasuna zaindu beharreko plataformak direla defenditzen du, genero eraikuntzan ondorio zuzenak dituztelako.

Antzerki munduan dabilzan profesionalek, arte eszenikoek, genero desberdintasuna egonkortzen eta horizonte berriak azalarazten lagundu dezaketela sinesten dute. Eskolek eta arte eskolek batera lan eginda, prozesu horretan lagundu dezakete, ikasleei kontzientzia aldatuz eta horrela gizartearen ikuspuntua aldatzera iritsiz. Haurra kolektibo zapaldua da, txikitatik ideiak garatzera lagundu beharrean, inposatu egiten zaizkielako eta hau aldatu egin behar da lehen aipaturiko plataforma horietan emakumeen ahalduntzea indartuz (Pascual, 2014).

Aldaketa hauek ematen hasteko, hau da, genero desberdintasuna eta sexismoa baztertzeko, ipuin kontalariak eta antzerkilariak rolen inguruan begiak zabaltzen lagundu dezakete, emakumezko eta gizonezkoen rol aldaketak landuz, adibidez. Umoreaz baliatu daiteke kritika soziala egiterako orduan, sentimenduak mindu gabe. *“Interesgarriena ez da zer egin behar duten esatea, ekintza ezberdinak egin eta beraiek kritikotasunez ikustea izan daiteke baliagarriena”* (Emakunde, 2009:36). Umorea eta rol jolasak bateratuz, emakume eta gizonezkoen desberdintasunak azalaraztea ahalbidetu daiteke.

3-METODOA

3.1- Testuingurua eta partaideak

Lan hau Gipuzkoako (Goierriko) 500 biztanleko herri txiki batean burutu da, Gabirian. Herri honetako eskola txikia da, 30 ikasle baitaude guztira: 12 dira Haur Hezkuntzako ikasleak eta 18 Lehen Hezkuntzakoak. Herria txikia denez, guztiek oso ongi ezagutzen dute elkar eta arratsaldeetan parkean egoten dira guraso guztiak familia handi baten moduan. Ez dago ludotekarik, baina ostiral arratsaldeetan 16:00etatik 18:00etara herriko liburutegia zabaltzen da. Haurrentzat ostirala iritsi eta bertara joatea oso motibagarria izaten dela diote gurasoek eta ostirala iristeko desiatzen egoten direla.

Liburutegia kultur etxean kokatzen den gela txiki bat da. Argitsua da, 7 apalategi ditu, bi mahai handi, aulkiak, ordenagailu bat eta nola ez, liburuak (**ikus I.eranskina**). Bertan ipuinak irakurtzen zaizkie, handienek txikienei irakurtzen dizkiete, pertsonaien inguruko marrazkiak egiten dituzte, margotu, ipuin berriak sortu, asmakizunak asmatzen dituzte eta askoz ere jarduera gehiago burutzen dira.

Lan honetan parte hartu duten haurrak hiru eta hamabi urte bitartekoak izan dira. Ez dira guztiak saio guztietan egon, baina badira beti etortzen diren ikasleak ere. Jolasen bitartez ikasteko gogo handia duten ikasleak dira hauek, metodo desberdinen bitartez elkarrekin jolasean ikasten ohituta daudelako. Oso ongi ezagutzen dute elkar asko familiakoak direlako eta beti herrian batera daudelako. Adin desberdintasuna zailtasun moduan ikusi beharrean, ezaugarri positibotzat hartu eta horretaz baliatzen dira elkarrengandik aberasteko.

Ikasle hauei asko gustatzen zaizkie ipuinak irakurri eta hauen inguruko ariketa desberdinak egitea, imaginazio handiko haurrak direlako. Egia esan beraiekin lan egitea oso erraza eta atsegina da, eskolatik kanpoko orduetan ere jolasen bitartez lan egiteko prest eta gustura egoten direlako.

3.2- Prozedura

Lan hau aurrera eramateko fase edo pauso desberdinetatik pasatu behar izan da:

1.pausoa: liburutegiko alde indartsuak eta gabeziak aztertzea

Liburutegiko alde indartsu eta gabeziak aztertzeari ekin zitzaion hasiera batean. Alde indartsua talde-dinamika zela ikusi zen, ikasleek eskolan elkar laguntzen ikasten duten bezala, liburutegian ere funtzionamendu berarekin jarraitzen delako. Jarduera desberdinak egiteko prest izan ohi dira ikasleak eta hori oso alde positibo bezala nabarmendu zen. Gabeziei zegokienez ipuinak zaharkiturik zeudela ikusi zen hasiera batean, ezer sakonki aztertu gabe atera zen hipotesia, eta ipuin horiek ikasleei nahi gabe ere genero desberdintasuna erakusten zietela. Beraz ikuspuntu hau kontuan hartuta, gabezia hauek sakonago aztertu eta horri buelta ematera bideraturiko lana egitea erabaki zen.

2.pausoa: hasierako hipotesia baieztatzea, liburutegiari zegokionez

Ipuinak benetan zaharkiturik ote zeuden ikusteko behaketa-fitxa bat egin zen (**ikus II.eranskina, II.I-Liburutegia aztertzeako lehenengo fitxa**). Behaketa fitxarekin liburutegi osoa arakatu ondoren, liburutegia urte batzuk ipuin berririk erosi gabe zegoela frogatu zen eta duela hogeitaz urte irakurtzen ziren ipuin asko irakurtzen jarraitzen zirela baieztatu zen. Horien artean Disneyen ipuinak, Teorenak, Ibairenak eta abar zeudela ikusi zen eta horietako asko ipuin sexistak zirela baieztatu zen, nahiz eta momentu horretan ipuin sexistek eta hezkidetzakoek zein ezaugarri zituzten ongi ez jakin, bibliografia aztertu aurretik egin zelako hau.

3.pausoa: hipotesia baieztatzea, ikasleen gustuei zegokienez

Zure gustuko ipuina jarduera egin zen ikasleekin. Hauek adin desberdinetakoak izanik, modu sinple eta bisualena marrazkiak egitea izan ohi da eta beraz, beraien gustuko ipuina kartulina-postaletan margotzeko eskatu zitzaientzen, beraien genero-rol ikuspegia ipuin gustukoenetan agertuko ote zen ikusteko. "Tresnak" puntuan ateratako ondorioak hobeto adierazita ageri diren arren, hipotesia baieztatu zen (**ikus III.eranskina**).

4.pausoa: Udalari GRALarekiko intentzioak komunikatu

Hurrengo pausoa Udalera joan eta herriko liburutegia izanik nahiz Gradu Amaierako Lana uztartuz, liburutegian berrikuntzak egin nahi nituela adierazi nien. Proposamen berrietarako esku-zabalik daude beti eta asko gustatu zitzaientzen proposamena. Gainera, sorpresa izugarria izan zen beraien adierazi zutena. Liburutegietarako diru-laguntza bat

zegoela azaldu zuten eta momentu horretan bertan buruak klik egin eta Gradu Amaierako Lan hau praktikara eraman zitekeela ikusi nuen.

Udaleko langileak ipuin berriak abendua amaitu baino lehen eskatu behar zirela esan zuen eta liburuzainarekin, GRALaren egilearekin, fidatu zen honek nahi zituen ipuinak aukeratu eta erosteko askatasuna emanaz. Hau izugarria izan zen, eta jarraian bibliografia aztertu eta haurrentzako hezkidetzarako ipuinak aukeratzeari ekin zitzaion.

5.pausoa: haur literaturaren eta hezkidetzaren inguruko bibliografia aztertu

Bibliografia aztertu eta marko teorikoa sortzeari ekin zitzaion, kontzeptuak argi utziz eta ipuin tradizional zein modernoetan zentratuz. Hezkidetzarako ipuinak zein ziren eta zein ezaugarri zituzten jakin nahi izan zen gehienbat. Hau jakin ostean, 2.pausoan aztertutako ipuin horietako batzuk hartu eta sakonkiago aztertu ziren, benetan sexistak edo hezkidetzailleak ote ziren ikusteko (**II. eranskina, II.II-Liburutegia aztertzeko behaketa fitxa taula berriak**). Aurreko taulako bilduma desberdinetako 8 ipuin aztertu ziren marko teorikoko informazioari esker sortutako taula berri batekin. Ipuin bakoitza aztertu ondoren emaitzak beste taula batean bildu ziren, bisualago ikusi ahal izateko. Ausaz aukeratutako 8 ipuin horietatik bakarra zen hezkidetzaillea eta besteek ezaugarri sexistak transmititzen zituzten, taulako emaitzetan argi eta garbi ikusi ahal den bezala.

Hau argi izanda, Marko teorikoan ikasitako informazioaz eta aurtengo kurtsoan *Irakurzaletasuna eta Liburutegiak minorrean* ikasitakoaz baliatuz, haurrentzat hogeit hamar ipuin hezkidetzaille aukeratu ziren Gabiriako liburutegira eramateko. Laneko momenturik zailena ipuin hauen aukeraketa izan zen. Haurrentzat zeuden hogeit hamar ipuin egokienak aukeratu nahi ziren eta bibliografia aztertzeko horrenbeste zeuden asko aztertu eta horien artean hogeit hamar aukeraketa oso zaila izan zela. Ipuin hauetako bakoitza aukeratzeko ere taula batez baliatu ginen; laneko 2.taulaz, aukeratutako ipuin bakoitzak ezaugarri hezkidetzailleak ote zituzten ziurtatzeko (**ikus IV.eranskina**).

Hauetako ipuin batzuek hasieran ezaugarri sexista batzuk zituzten, ikasleei istorioa sexista izatetik hezkidetzaille izaterako bidea erakusteagatik, horregatik atera ziren erantzun gorri batzuk. Amaieran berriz, istorio guzti horiek hezkidetzailleak zirela ziurtatu zitezkeela ikusi zen, eta ikasleentzat aukeraketa egokia egin zela jakin ahal izan zen taula horiei esker.

Aukeratutako ipuin guztiek betetzen zituzten ezaugarri horiek hauexek dira:

- Sexuari lotutako rola ez zituzten errepikatzen (edo errepikatzeotan amaieran egoerari buelta ematen zitzaion irakaspen bat emanaz).

- Genero estereotipoei ez zieten erantzuten (edo erantzutekotan amaieran egoerari buelta ematen zitzaion irakaspen bat emanez).
- Generoari zegozkion bestelako baloreak bultzatzen zituzten, ez ziren diskriminatzaileak.
- Haurren bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen zuten.
- Jendarte parekidera bultzatzen zuten, guztientzako aukera berdintasuna izatera.
- Pertsonak osotasunean garatzen laguntzen zuten ipuinak ziren.
- Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen zituzten.

Haurrentzat hogeit hamar ipuinak aukeratu eta hezkidetzailleak zirela frogatu ostean, beste hogeit hamar aukeratzea falta zen gazte-helduentzat. Horretan herriko emakume eta irakasle irakurzaile batek lagundu zidan, aukeraketa hau bakarrik egitea ardura handia baitzen (**ikus V.eranskina**).

Guztiak aukeratutakoan abenduaren 26an betiko konfiantzazko liburu dendara joan eta liburu berri guztiak eskatu zitzaizkien. Urtarrilean iritsi ziren, baina umeen 20 ipuinak aurkezteko modu original bat erabili nahi zen.

6.pausoa: ipuinen aurkezpena

Bibliografia aztertu zenean ideia asko etorri ziren burura, baina Galtzagorriren *Itsaspeko bihotzak* jarduera oso egokia eta polita iruditu zitzaigun honetarako. Beste izen bat jarri zaio, *Tximeleta hegalaria* hain zuzen ere eta jarduerak hasi baino egun batzuk lehenago, guraso eta herritarren artean informazioa zabaldu zen (**ikus VI.eranskina**). Altxorreko ipuinak hiru “familiatan” banatu ziren: “Ni”, “besteak” eta “ingurunea”, Haur Hezkuntzako esperientzia eremuekin bat eginez (**ikus VII.eranskina**). Lehenengo saio honen plangintza proposamena eta emaitzak aurrerago daude ikusgai.

7.pausoa: ipuinak aukeratu eta antzerkia osatu

Hurrengo liburutegi orduak ipuinak irakurri, aztertu eta elkarri antzezteko aprobetxatu nahi ziren, baina COVID-19a zela eta ezin izan ziren saio horiek burutu. Pauso honen inguruko plangintza proposamenak eta emaitzak ere aurrerago daude ikusgai.

3.3- Tresnak

→ Behaketa fitxak:

Behaketa fitxa oso tresna egokia izaten da informazioa jasotzeko, eta bereziki hurrekin ari garenean. Lan hau egiteko, bi behaketa fitxa sortu ziren:

Lehenengo behaketa fitxa bibliografia aztertu aurretik egin zen liburutegiko ipuinak zaharkiturik ote zeuden aztertzeko. Fitxa horren atalak bildumaren izena, argitapen urtea eta sexista da? izan ziren. Oraindik gaiaren inguruan informazio askorik ez genuenez, nahiko azalekoa eta subjektiboa izan zen, ipuin bat sexista den edo hezkidetzalea den jakiteko faktore gehiago behatu beharrean zeudelako. Lehenengo begirada baterako bere funtzioa bete zuen behintzat.

Bigarrena berriz, marko teorikoa osatu eta kontzeptuak argi zeudela egin zen. Hau sortzeko honen inguruan marko teorikoan azterturiko atalak izan ziren kontuan. Pertsonaia nagusien ezaugarriak argi izatea eta ilustrazioak behatzea beharrezkoa zela konturatu nintzen ipuin bat aztertzerako garaian. Sakonki aztertu behar dira hauek, ezaugarriak txikienez ere kontatzen duelako eta horregatik sortu genituen azpi-atal zehatzak. Horiez gain, benetan hezkidetzalea edo sexista ote den jakiteko pertsonaien ekintzak ere aztertu behar dira eta bibliografiatik azterturiko puntu hauek taula batean jarrita ipuinak aztertzeko tresna baliagarri bat sortu genuen. Zergatik atal horiek eta ez beste batzuk? ipuin batetik informazio asko atera daiteke, fokoa interesatzen zaigun gai edo atalera begira jarrita eta guri interesatzen zaiguna puntu zehatz horiek aztertuta jakin dezakegu.

Tresna hauek oso baliagarriak izan dira, alde batetik liburutegian irakurtzen diren ipuin asko sexistak direla ziurtatzeko, eta bestetik 2008. urtetik ez dela ipuin berririk erosi oharatzeko.

→ Postalak:

Postalak tresna egokia dira haur txikien informazioa biltzeko. Izan ere, askotan egiten dituzten marrazkien hitzez adierazten dituzten gauzek baino askoz gehiago kontatzen dute. Horregatik erabaki genuen marrazkia eskatzea eta postalaren formatua egokia iruditu zitzaigun jarduera hau egiteko.

3.4- Ikaskuntza zerbitzua

Zerbikas EAEn Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa sustatzen duen zentroa da, proiektuak ahalbidetuz. Ikasketa eta Zerbitzu solidarioa, ikasketa eta komunitateari emandako zerbitzua proiektu bakarrean uztartzen duen hezkuntza proposamena da. Motibagarria den arazo bat hautatu (kasu honetan GrAL-eko gaia) eta parte-hartzaileek ekintzak egiten dituzte haien ingurua hobetzeko asmoz.

Gradu Amaierako Lana teoria hutsean geratu beharrean, praktikara eraman eta ikasketak komunitateari emandako zerbitzua hobetzen du, bizi-kalitatean eta zuzentasunean gora egiten baitu, zerbitzuak ikaskuntzari zentzua emanez.

Ikasketa Zerbitzu Solidarioaren ezaugarriak:

- Estrategia pedagogiko baliagarria da hezkuntza formal eta ez-formalerako. Hezkuntza ez-formalean, hiriko udalekuetan, kanpamenduetan, etab. bultzatu daiteke. Adin eta hezkuntza etapa guztiei dago zuzenduta.
- Zerbitzua gizartearen beharrian errealei emandako erantzuna izan behar da.
- Ikasketako prozesu kontziente, planifikatu eta sistematikoak garatzen ditu, zerbitzuko lanak eduki eta gaitasun garrantzitsuekin erlazionatuz.
- Esperientziaren pedagogian, partaidetza aktiboan, hausnarketan eta arazoen konponketan eta lankidetzan oinarritzen da.
- Eduki intelektualen, emozionalen eta jarrerazkoen ikasketaren alde egiten du.
- Pentsamendu kritikoa, erantzukizun zibikoa, garapen pertsonala eta hiritartasuna sustatzen duten baloreak transmititzen ditu eta inguru soziala hobetzen laguntzen du.

Zerbikasen web orrialdean beharrezko informazio guztia dago, gida praktikoak eta jarraitu beharreko pausoak ere bertan zehazturik daudelako. Oso garrantzitsua izango da neska-mutilen parte hartzea zerbitzu honetan, eta horretarako gidan esaten denez, komenigarria da zerbitzua emango zaien pertsonen zer nahi duten galdetzea, eta beraien iritzia kontuan hartzea. Hausnarketa ere oso garrantzitsua izango da zerbitzu guztian zehar.

Lan honen bidez ere zerbitzu bat eman nahi izan da. Herriko liburutegia aukeratuta bertarako zerbitzu bat eskaintzea ahalbidetu da. Zerbitzu honi hamar ordu eskaini nahi izan zitzaizkion hasiera batean, liburutegia ostiral arratsaldeetan bi orduz zabaltzen denez, bost asteetako zerbitzua eman nahi zelako, otsailaren 28an hasi eta martxoaren 27an amaituz.

Konfinamenduaren ondorioz ezin izan dira saio guztiak burutu, metodoaren prozedura atalean adierazi bezala.

3.5- Helburuak

Bibliografian aurkitutako informazioan ikusitakoaren arabera, ipuin askok genero rol tradizionalak helarazten dituzte eta beraz, edukien inguruan informatu nahi izan da lehenik eta behin. Ikuspegi hezkidetzaillea zer den aztertzea, ipuin sexistak identifikatzea eta bakoitzaren ezaugarriak argi izatea izan da lehen helburua. Hori argi izanik, ipuin sexisten aurrean zer egin zitekeen aztertu nahi izan da eta haur antzerkiarekin lotzea erabaki da. Haur antzerkiak umeei espresatzen eta komunikatzen laguntzeaz gain, modu oso bisualean genero rolen inguruan begiak zabaltzen laguntzen duelako.

Bigarren helburua, hezkidetzarako liburu berriak aukeratu eta liburutegira eramatea da, hau literatur lan berrituz aberastu eta bide batez bertarutzen diren ikasleek irakurtzeko aukera desberdinak izan ditzaten. Argi ikusi da marko teorikoan ipuin tradizionalek ideia batzuk transmititu arren, beraietaz ere baliatu gaitzkeela, baina lan honi esker liburutegi gaurkotuago batean aukera gehiago egongo dira, ikasleek nahi dituzten ipuinak aukeratu eta ideia desberdinak transmititzeko.

Hirugarren helburua, errealitatera aplikatzen den Gradu Amaierako Lana egitea izan da. Horrela herri liburutegi bat formatzen lagundu ahal izan da, bide batez gaiaren inguruan formatuz, herri liburutegiari ekarpen txiki bat eginez eta hobetzen lagunduz. Ikaskuntza-zerbitzuaz baliatuz izan da hau posible, teoriatik praktikotasunera eraman ahal izan delako lana. Beraz, herriko liburutegiaren erabiltzaileei zerbitzu bat ematea du helburu lan honek, beti ere, hezkidetzaren ikuspegitik begiratuta.

4- PROPOSAMENA

Gradu Amaierako Lana teorikoa izateaz gain, praktikara ere eraman da. Liburutegirako liburu berriak erosita izanda, hauek ikasleengana hurbiltzeko jarduera bat pentsatu da, horrela hezkidetzaz lantzen jarraituz. Esku-hartze hau hiru zati desberdinetan banatuta egon da: ipuinen aurkezpen jarduera, ipuinen irakurketa eta antzerkiaren lanketa.

Ezer baino lehen esan nahi dugu, erositako ipuinak hiru familiatan banatu direla: “ni”, “besteak” eta “ingurunea” gaien arabera. Ipuin batzuetan “nia” ikusten da ikasleak bere buruengan pentsaraziz; beste batzuetan “besteak” ikusteko aukera dago, “ni”az gain beste batzuk badaudelako eta “nian” eragina izan dezaketelako inguruko pertsona horiek. “Ingurunea”ri dagokionez, ikasleak ingurune batean kokatuta daude eta ingurune hori ere oso garrantzitsua da, mundua ulertu ahal izateko.

Ipuinak familiatan banatu ondoren, hauen aurkezpenerako *Itsaspeko bihotzak* jarduera kontuan izanik, liburutegira egokitutako antzeko jarduera bat egitea erabaki da *Tximeleta hegalaria* izenekoa. Ikasleak jardueraren barruan sartu eta unibertso horretan murgiltzeko jarri zaio jarduerari *Tximeleta hegalaria* izena. Ikasle bakoitzak bere tximeleta izango du hasieratik eta hiru txokoetan barrena pasatzen joango dira jarduera honetan zehar, txoko bakoitzak lore desberdin bat izango duelarik. Tximeletak lorez lore pasatzen joango dira beraien artean lagunak egiten eta ingurunean pausatzen doazen bitartean, musika lagun dutela.

Hezitzailearen lana ikasleak zirikatuz eta motibatuz jarduerak bideratzea izango da. Ipuinak kontatzeaz gain, galderak egingo dizkie esaten dutenaren inguruan pentsarazteko. Jarduerak azalduko dizkie, baina ikasleek beraien kabuz egingo dituzte ekintzak eta beraien erritmoa errespetatu beharko du hezitzaileak. Ikasleak dibertitu daitezten saiatuko da eta laguntzeko prest egongo da momentu oro, hauek behatuz eta erreakzio desberdinak aztertuz.

Saio hauek erregistratzeko eta ebaluatzeko eguneroko bat egin da (**ikus VIII. eranskina**). Egunerokoa hiru zatitan banatu da egunka: saio bakoitzean ikasleak etorri aurretik prest utzitakoak kontatzeko lekua, ikasleekin gertatu dena kontatzeko eta ondoren geratutako sentazioa azaltzeko eta baloratzeko lekuak daude. Eguneroko bizipenak, sentipenak, harridurak, lorpenak, porrotak eta abar adieraziko dira bertan, ondoren ebaluaziorako erabiltzeko helburuarekin.

Zerbitzuaren diseinua:

4.1- Ipuinen aurkezpen jarduera

1.eguna: "Tximeleta hegalaria"

Metodoa:

1-Ikaskale bakoitzari txuri-beltzean inprimaturiko tximeleta bana banatu.

2-Tximeletak margotu.

3-Egingo duguna azaldu eta tximeleten munduan murgildu musikaren bitartez.

4- Lehenengo txokora joan eta *Arrosa eta leuna* ipuina kontatu.

- Ipuinaren inguruan hitz egin.
- Gure sentipenak azaldu.
- Nahi dugun moduan mozorrotu, ipuinean egiten duten bezala.

5- Musikaren bitartez bigarren txokora pasatu eta *Gora koloretako azazkalak* ipuina irakurri.

- Ipuinaren inguruan hitz egin
- Gure sentipenak azaldu
- Talde kohesiorako modu desberdinean elkar agurtzeko jolas bat egin eta elkarri zer moduz dauden galdetu.

6- Tximeletak paretan itsatsita utzi hurrengo astera arte.

Materialak	Lekua	Denbora	Taldea
-Tximeletak -Margoak -Arrosa eta leuna ipuina -Blu tack Gora koloretako azazkalak ipuina -Mozorroak -Mugikorra (musika)	-Musika gela zein bileren aretoa	- 2 ordu	-Taldea osoa

2.eguna: “Tximeleta hegalariaen” amaiera

Metodoa:

- 1- Tximeletak paretatik jaso.
- 2- Musikaren bitartez “ingurunea” txokora joan.
 - Zuhaitz baten silueta egongo da horman (lehendik prestatuta) eta tximeletak zuhaitzen adarretan kokatuko dituzte.
 - Zuhaitzean bizitzeko zer behar duten galdetuko zaie.
 - *Bi txori* ipuina kontatuko zaie.
 - Ipuina amaitzean ikasleen tximeleten eta ipuineko bi txorien arteko desberdintasunak aurkituko dira eta sortutako tximeletentzat egokiena zer izango litzatekeen pentsatuko dute.
- 3- Altxorraren marrazkia erakutsiko zaie ikasleei, gelan zehar pista batzuk dituztela adieraziz.
- 4- Pistak zuhaitzeko tximeletatxoan eta hostoen atzean egongo dira, tximeletatxo eta hosto bakoitzeko hizki bat egongo delako eta hizkiak elkarturik “B” “A” “L” “K” “O” “I” “A” “N” osatu beharko dute.
- 5- Balkoian egongo da altxorra eta aurkitzean bertako ipuinak behatzen hasi ahalko dira, handienek txikienei kontatuz, ilustrazioak ikusiz edota beste taldeetakoekin komentatuz.

Materialak	Lekua	Denbora	Taldea
-Tximeletak -Bi txori ipuina -Altxorra eta bere marrazkia -Zuhaitza (lehendik eginda) -Pistak (lehendik eginda)	-Musika gela zein bileren aretoa	-Bi ordu	-Talde osoa

4.2- Ipuinen irakurketa

3.eguna: Ipuinak ezagutzeko eguna

Metodoa:

- 1- Ikasleek aurreko astean ezagututako altxorreko liburu berriak begiratu, manipulatu eta elkarri kontatzeko momentua izango dute.
- 2- Ipuin berrien inguruan pentsatzen dutena azaldu eta liburutegian txoko berri bat sortuko dute ipuin berri horiek gordetzeko.
- 3-Datozen saioetan egingo dutena adierazi

Materialak	Lekua	Denbora	Taldea
-Ipuin berriak	-Liburutegia	-Bi ordu	-Taldea osoa

4.3- Antzerkiaren lanketa

4.eguna: antzeztuko duten ipuina aukeratzeko eta antzeatzeko eguna

Metodoa:

- 1- Ikasleak hiru taldetan banatu.
- 2- Talde bakoitzak egokitu zaion "familiako" ipuin bana aukeratu.
 - "Ni" taldekoek pertsonaia bat aukeratu dute eta ipuineko egoera batean kokatuko dute antzerki hasieran.
 - "Besteak" taldekoek beste egoera bat aukeratu eta antzeztuko dute.
 - "Ingurunea" taldekoek beste bat.
- 3-Hiru ipuinen arteko momentu bana aukeratu zein antzeztuz, hiru ipuinen arteko fusio bat egingo dute, ipuin berri bat sortu eta antzeztuz.
- 4-Ipuinak ezagutu, modu desberdinetan irakurri eta euren artean hitz egiteaz gain, antzerkirako baliabideak garatuko dituzte marko teorikoan adierazi den moduan.

Materialak	Lekua	Denbora	Taldea
-Ipuin berriak	-Liburutegian	-2 ordu	-Hiru talde

5.eguna: antzerkiaren eguna

Metodoa:

- 1- Antzerkia entseatu
- 2- Gurasoak gonbidatu
- 3- Antzerkia egin
- 4- Egun hauetako jardueren balorazioa egin
 - “Gustatu zaizue? zer gustatu zaizue? zer ez? zertan izan dituzue zailtasunak? gustatu zaizkizue aukeratutako ipuin berriak?” eta abar galdetuko zaie.
- 5- Ikasle bakoitzak gehien gustatu zaiona marraztuko du paper batean eta hau ere balorazioaren barruan sartuko da.

Materialak	Lekua	Denbora	Taldea
-Mozorroak -Ipuinak -Orri zuriak -Margoak	-Musika gela zein bileren aretoa	-2 ordu	-Hiru talde

5- EMAITZAK

Hasiera batean liburutegiko ipuinak zaharkiturik zeudela baieztatu zitekeen liburutegiko katalogoari azaletik begiratzearekin bakarrik eta horrelaxe egin zen liburutegia aztertzeko lehenengo fitxa erabiliz. Hau aztertzean gaiari buruz bildutako bibliografia begiratu gabe zegoen oraindik eta nahiko azaleko ondorioak atera ziren, nahiz eta liburutegiko ipuinak sexistak zirela ondorioztatu. Ostiraletan liburutegira joaten diren ikasleen genero-rol ikuspegia ipuin gustukoenetan agertuko ote zen ikusi nahi izan zen horren ondoren eta horretarako *Zure gustuko ipuina* jarduera egin zen beraiekin. Egun horretan hamabi ikasle bertaratu ziren liburutegira, Haur Hezkuntzako 4 ikasle eta 8 Lehen Hezkuntzakoak. Beraiek egin zituzten marrazkiak aztertzean ere ikasleen gustuetan genero-rolak errepikatzen zirela ziurtatu zen.

	Neska	Mutila
Haur Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> • Liburu baten marrazkia (3 urte) • Printzesenak (4 urte) • Printzesenak (4 urte) 	<ul style="list-style-type: none"> • Liburu baten marrazkia (3 urte)
Lehen hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> • Patataren istorioa (6 urte) • Patataren istorioa(6 urte) • Bazterra jauna (7 urte) • Modeloarena (9 urte) • Kezkamuxela (10 urte) 	<ul style="list-style-type: none"> • Animaliak (9 urte) • Animaliak (9 urte) • Autoak (10 urte)

12 ikasletatik bi txikienek liburu baten marrazkia egin zuten, ez zekitelako ongi zer zen eskatzen zitzaiena. Lau neskek Patataren istorioa, Bazterra jauna eta Kezkamuxelak aukeratu zituzten, genero desberdintasunik agertzen ez diren bi ipuin. Printzesen eta modeloen inguruko marrazkiak 3 izan dira eta hauek neskek egin dituzte. Mutil handienek berriz animalien eta autoen inguruko ipuinak irakurtzen dituztela baieztatu da.

Postaletan argi ikus daitekeen moduan neskek zein mutilek beraien gustuak oso finkatuta dituzte eta genero estereotipoek horretan eragina dutela nabarmen ikusten da. Zergatik? Lau mutiletatik hiruri autoen eta animalien ipuinak gustatzen zaizkielako, ikasle mutilen %75ri eta neskei bestelakoak gustatzen zaizkie, hala nola Patataren istorioa %28ri, Bazterra jauna %14ri, Kezkamuxelak %14ri eta modelo zein printzesenak %43ri.

Azterketa horrekin ez zen nahikoa izan, hasierako hipotesia baieztatu edo ezeztatu beharrean zegoelako datuak atera eta analizatuz. Horretarako gaiaren inguruan ikertu zen eta bibliografia osatzen joan zen ipuin sexistak zer ziren jakin eta hezkidetzarako ipuinen ezaugarriak aztertzeko. Bigarren behaketa-fitxa zehatzago bat sortu eta liburutegiko haurrek irakurtzen zituzten bildumetako 8 ipuin ausaz aukeratu eta aztertu ziren. Emaitzak nahiko argiak izan ziren.

- Pertsonaia nagusietatik etxean lan egiten zuten 7 emakume zeuden, hau da, %70 eta 3 gizonezko, %30. Klean lan egiten zutenak aldiz, emakume bat %16a eta 5 gizon %84 ziren.

- Ilustrazioei zegokienez amantala edo erosketarako orgatxoarekin agertzen ziren 6 emakume %86 eta gizon bat %14 zeuden eta garbitzeko tresnak zituzten 4 emakume %80 eta gizonezko 1 %20.
- Pertsonaien ekintzak aztertuz, 8 liburutatik seitan, hau da, %75ean, sexuari lotutako genero rola errepikatzen ziren eta estereotipoei erantzuten zieten eta, horrez gain, pertsonaia guztiek ez zituzten aukera berdinak. Generoari zegozkien bestelako baloreak bultzatzen zituzten balore positiborik ote zuten aztertzean %88 ezezkoa izan zen, liburu bakarra baitzen hezkidetzaillea.

Hau guztia aztertu ondoren, hasiera batean pentsatzen zena baino ezaugarri ezkutu gehiago zeudela ondorioztatu ahal izan zen eta honekin hasierako hipotesia baieztatu zen: irakurtzen zituzten liburutegiko ipuinak zaharkiturik zeuden, ezaugarri sexistak zituzten eta horrek genero desberdintasuna transmititzen zuen.

Ikasleekin egin zen hurrengo ekintza, ipuinen aurkezpen saioa izan zen. 19 ikasle bertaratu ziren lehenengo saio berezira eta uste baino mozorrotzeko arropa gehiago ekarri zituzten, poltsa erraldoi bat bete baikenuen mozorrotzeko arropaz. Ikasleak irrikatzen zeuden lehenengo saio horretarako eta oso gustura margotu zuen bakoitzak bere tximeleta. Beti bezala batzuk pazientzia handiz margotu zuten, marrazkiaren marretatik kanpora pasatu gabe eta koloreak egoki aukeratuz, beste batzuk handienei kopiau zieten eta hamar minututan amaitu zuen bakarrenbat ere egon zen. Gela batean gertatzen den bezalaxe, bakoitzak bere pertsonalitatea du eta azkar margotu zutenek beste bat margotu zuten geroago etorriko ziren ikasleentzako. Elkarlanean ohituta daude eskolan asko lantzen dutelako eta asko errespetatzen dute hori.

Tximeleten mundura sartu ginenean handienak apur bat lotsatuta zeuden arren, paperean sartzen joan ziren inork barre egingo ez ziela bazekitelako. Ikasle txikienak oso gustura agertzen ziren hasieran, zerbait berria zelako beraientzat eta lehenengo ipuina arreta handiz entzun zuten. Nik aipatu gabe gai oso interesgarriak ere atera ziren eta ikasle batzuk beraien iritzia eman zuten. *Arrosa eta leunaren* ipuina irakurri ondoren adibidez, ideia oso aberasgarriak partekatu zituzten, nik espero gabeak. Batzuek esan zuten oso ondo egin zutela elefante emeek itxuratik aterata, beste batzuek esan zuten neskek eta mutilak hobeto bizi direla elkarrekin, eta abar. Espero gabeko momentu interesgarria izan zen eta hari horretatik tira egiten jarraituko nukeen ikasle txikienengatik izan ez balitz. Normala da, 3-4 urteko ikasleak aspertu egiten dira momentu batetik aurrera eta hurrengo jarduerara salto egin behar izan genuen. Nik jarraitu egin nahiko nuke, baina jakin egin behar da

batzuetan amaitu eta hurrengoarekin hasten, batik bat Haur Hezkuntzako ikasleekin, jarraitu izan bagenu gaiarekiko emaitza eta ondorio borobilagoak aterako nituzkeen arren.

Antzerkia egin zutenean oso gustura sentitu ziren, kanpotik argi ikusten zen hori eta beraien irudimenak askorako eman zuen. Txikienak harrapatzen zutenarekin mozorrotzen ziren eta handienek arropa barregarrirantz jotzen zuten. Egunerokoan aipatu bezala, LHko mutil batzuk oso neska estereotipatuez mozorrotu ziren momentu batzuetan eta neskek mutilez. Aipatzekoa iruditzen zait, betidanik bitxia iruditu izan zaidalako mozorrotzeko joera horien atzean egon daitekeena. Mozorroak aldatzen joan ziren denbora horretan zehar eta antzerki solteak asmatzen zituzten. Ezkontza bat simulatu zuten eta ondoren DJa izan zuten, adibidez. Antzokia momentuan eraldatzen zen oso-osorik eta guztiek ideia berdinak jarraitzen zituzten. Ikasle guztiek baten ideari jarraitzearena kanpotik ikusi ahal izatea asko gustatu zitzaidan. Asko ikusi eta aztertu daiteke behaketaren bidez ikasleak beraien kasa beraien gustuko lanean uzten dituzunean, eta sentsazio horixe izan nuen momentu horretan. Egia esan aurrean haur antzerkia inoiz sakonki landu ez dudana bai bat izan da eta izugarritzko garrantzia duela konturatu naiz, ikasleei espresatzeko eta komunikatzeko teknikak eta bitartekoak ematen dizkielako eta horrela beraien buruekiko, besteekiko eta inguruarekiko ezagutzak lortzen dituztelako.

40 minutu soberan genituenez hurrengo asteko saioa egun horretan bertan egingo genuela erabaki nuen eta halaxe izan zen. Hurrengo aipatzeko momentu interesgarriena, *Gora koloretako azazkalak* ipuina irakurri ondoren gertatu zen. 12 urteko ikasle batek azazkalak “*marikoiek*” margotzen zituztela esan zuen, eta momentuan ongi jokatu nuela uste dut, gaur egun edonork margotu ditzakeela adieraziz. Horren atzean zegoenak tristetu ninduen ordea. Ume hauek txikitatik ezagutzen ditut eta herrian guztiok ezagutzen dugu elkar. Udalekuetan duela urte asko gorabehera bat izan genuen ikasle horren aitarekin bere semeari azazkalak margotu genizkiolako. Tristeza iruditu zitzaidan bere erantzun hori, banekielako berari txikitik azazkalak margotzea gustatzen zitzaiola eta zergatik pentsatzen zuen horrela. Beste ikasleak nire erantzunarekin eta beraiek pentsatzen zutenarekin konforme geratu ziren eta 12 urteko ikasle hori izan zen estereotipoan tematuta jarraitu zuen bakarra.

Anekdotak triste hori alde batera utzita, azken txokora iritsi ginen. Tximeletak zuhaitzaren adarretan kokatu genituen eta *Bi txori* ipuina kontatu nien. Ipuina hitzik gabea da, baina oso bisuala da eta asko gustatu zitzaien. Ipuina kontatu ostean apur bat

komentatzen hasi ginen, baina txikienak mugitzeko gogoarekin zeuden eta azkar pasatu ginen hortik altxorra aurkitzera. Pasarte barregarria hemen dator, altxorraren aurkikuntzan. Nik planifikatu eta pentsatutakoaren arabera, saio guztietan garrantzitsuena eta momentu zirrargarriena altxorra aurkitu eta beraien artean partekatzea izango zela pentsatu nuen. Hara non, altxorra aurkitzean ikasle gehienek antzerkiekin jarraitu zuten. Nik beste erreakzio batzuk espero nituen, baina horrelakoak dira umeak, ez dakizu nondik joko duten zein momentutan dauden eta une dibertigarri bezala gogoratzen dut momentu hori.

Ipuin berriak irakurtzeko saioaren emaitzak ere positiboak izan ziren, ikasle askok ipuinen bat etxera eraman nahi zutela ere adierazi baitzuten. Hurrengo saioetarako behar zituztela adierazi zitzairen eta bost asteak pasatzean etxera eraman ahal izango zituztela. Jarraian gertatuko zena jakin izan banu (osasun larrialdi egoera eta horren ondoriozko itxialdia) utziko nieke nahi zituzten ipuinak etxera eramaten. Azken saioan ipuinak aztertu zituzten eta gehienak irakurtzeko astia izan ez bazen ere, irakurritakoak gustura jaso zituzten.

Ezin izan dira ondorengo hiru saioak burutu COVID-19agatik. Ondorioz haiek prestatutako antzerkiaren zatia ezin izan da bete eta horrek tristetzen nau gehien. Lehen azaldu dudan moduan, haur antzerkia aurten aztertu ahal izan dut gertutik lehenengo aldiz eta gehiago ikusteko eta probatzeko gogoz geratu naiz. Genero berdintasuna lortzeko eta ikasleekin lantzeko oso metodo polita, dibertigarria eta bisuala dela konturatu naizelako.

Lehenengo bi-hiru saioen emaitzak oso onak izan dira oro har, orain arte kontatutako moduan. Umeei zerbait berezia eginda balorazio positiboak atera ohi dira normalean eta honetan ere horrelaxe izan da. Ikasleen baloraziorako, *egindakoa saioetatik gehien gustatu zitzaiena marraztea* egin nahi izan zen amaieran hortik emaitzak eta ondorioak ateratzeko, baina ezin izan zenez azken saioa gauzatu, saioetan behatutakoaz eta egunerokoan azaldutakoaz baliatu naiz orain arte egindakoa ebaluatu ahal izateko.

COVID-19a gainditu eta hau guztia normaltasunera itzultzen denean jarraituko dugu saioekin, seguruenik Gradu Amaierako Lan honetan sartuko ez bada ere. Ikasleei eta herritarrei zor zaie eta saioak prest daude. Gainera ikasleak horrenbeste egunetan etxean sartuta egon ondoren elkarrekin jolastu eta ongi pasatzeko gogoia izango dute, hortaz lehenbailehen amaituko da saio hauekin.

6- ONDORIOAK

6.1- Lanaren ondorioak

Lanaren teoriak eta praktikak bat egiten dutela baieztatu dezaket.

Bibliografian aztertu ahal izan dudanez, ipuin tradizionalak ezaugarri sexista, klasista zein arrazistadun estereotipoak erakusten dituzte, mendebaldeko kultura diskriminatzailea izan delako denbora luzean. Rosek (2012) dioen moduan arketipoek eta mitoek gizarte androzentriko eta patriarkala eratu izan dute eta honekin batera emakume zein gizonezkoek zer egin, nola portatu eta beraien ezaugarri arauemaileak ezarri dira, bestelako eredu batzuk baztertuz. Hau guztia haur ipuinetan argi eta garbi ikusi daiteke eta ipuin tradizionalak estereotipoak eta aurreiritziak jendartean izaten jarraitzen lagundu dute, umeez hau xurgatuz eta portaera horiek errepikatuz, iraunaraziz (Márquez, 2017).

Errealitatean zer ikusi dudan? ikasleek ipuin sexistak dituzte eskura, argi eta garbi ikusi da liburutegiko zortzi ipuinen azterketa horretan. Horregatik dituzte nahiago neskek printzesen eta modeloen liburuak eta mutilek autoenak eta animalienak, genero-rolak horrelakoak direla uste dutelako. Ikasleei ez baldin bazaie irakasten ipuin horiek kritikotasunez begiratzen ipuin sexistak eta hezkidetzailleak irakurrita eta aurrekoekin alderatuta, gizarte liburu horietan agertzen dena bezalakoa dela pentsatzen dute. Etxanizek (2007) dioen bezala gure asmoa gizarte aurrerakoa, demokratikoa eta parte hartzailea bada hurrengo belaunaldiak kritikoak izan daitezten borrokatu behar dugu. Guztia lotuta dagoela ikusten da, marko teorikoari esker aztertu den teoriarik eta ondoren ikasleekin praktikan ikusi ahal izan den bezala.

Ume hauek ez dute gizarte sexista liburuetan bakarrik ikusiko, noski, telebistan, etxean, kalean eta inguruan eta entzuten dutenetik ere jasoko dute, azazkalak margotu nahi ez zituen ume horren kasuan bezala. Hala ere, aipatzeko oso garrantzitsua iruditzen zaidan datua ikasle txikienek ideia irekiagoak dituztela da eta handitzen doazen heinean beraien inguruan erreproduzitzen dena ikusten dutela eta guztia xurgatu. Lehen aipatu dudan azazkalak margotu nahi ez zituen mutilaren kasua adibidez. Haurrak modu batekoak izatera bideratu nahi ditu gizarteak, eta hori ekiditea izan beharko luke hemendik aurrerako hezitzaileon lana.

Artiedak (2015) dioten moduan gaurko irakasleek genero berdintasunaren inguruko formazio eta kontzientzia izan beharko dute, ikasleak pentsatzera bideratzen saiatuz. Irakasleek genero berdintasuna barneratuz gero, errazagoa izango da baloreetan eta hezkidetzan hezteak. Horregatik nahi izan ditugu liburutegira hezkidetzako liburuak eraman eta horregatik nahi da eskoletan hezkidetzak landu. Kaleetan berdintasuna nahi delako, behingoz gizartea eta bertako pentsamendua aldatzeko. Bereizketa horrekin hautsi eta estereotipo gabeko hezkuntza-sistema bat nahi baldin badugu, hezkidetzak da irtenbidea, honek sexista ez den hezkuntza dakarrelako (Subirats,1994).

6.2- Ondorio orokorrak

Saio guztiak bete ez diren arren, orain artekoarekin oso gustura nago. Harro nago egin dudana lanaz eta lan hau nire herria hobetzeko erabiltzeaz. Lan honekin nahi zena lortu da: helburuak bete dira teoria ezagutuz, hau ondo ulertuta eta kontzeptu bakoitza jakinda liburu desberdinak aztertuz eta aukeratuz, liburutegia liburu berriz hornituz eta haurren ipuin berriak modu dibertigarri batean aurkeztuz.

Argi dago lan honetan antolatutako bi edo bost saio izateagatik ez dela ikasle hauen ez bizitza ez pentsatzeko modua aldatuko, baina bai eragingo duela hausnartzera eta ikasleak pentsaraztera. Beraz hori lortuta harro egotekoa da helburuak bete direlako eta bertaratu diren ikasle horiengan eragina izateaz gain, liburutegian hezkidetzarako 40 liburu berri daudelako ondoren etorriko direnei lagunduko dietenak. Liburutegi gaurkotuago baten aldeko apustua egin da eta hemendik urte batzuetara joango diren umeei ere ipuin hezkidetzailleak ziurtatu zaizkie liburutegian.

Hezkidetzaren gaia hain da garrantzitsua niretzat, nahiz eta nik neuk ere gizarteak inposaturiko ideiak izan buruan, apurka desegiten joan eta ideia berriei ateak irekitzen joan naizela eta irakasle guztiok egin beharreko lana dela iruditzen zait (oraindik ere lan handia dut nik ere egiteko). Gizartea aldatu nahi bada, zerbait egin behar da honen aurrean eta nahiz eta pertsona bat aldaketa batzuk egiten hasi, nonbaitetik hasi behar dela pentsatzen dut eta GrAL hau oso baliagarria izan dela irakasle izaten naizenerako gauza batzuk kontu handiagoz lantzeko.

7- ETORKIZUNERA BEGIRAKO OHARRAK

Nire buruari autokritika egiteko garaia iritsita, lan hau hasi nuenetik gaur arteko prozesua aztertu dut. Hilabete batzuk pasatu dira eta prozesuan zehar aztertu eta egin dudana ikusita, nire lanean zerbait aldatu beharko banu, gurasoen parte hartzea sustatzea izango litzateke. Lan honekin konturatu naiz gurasoen ideien garrantziaz, eta berriro *Tximeleten mundura* itzuliko banintz, apur bat aldatu eta gurasoak gonbidatuko nituzke, familiarekin ikasteko txoko bat izango balitz bezala. Horrela guraso batzuk gaiarekiko garrantziaz ohartuko lirateke, nahiz eta beste batzuk beraienarekin jarraitu.

Autokritikarekin jarraituz, ikasleekin ongi moldatu naizela ikusi dut, baina beti dago hobetzea. Umeen inguruan mugitzen naiz beti (partikularrak, umeak zaindu, udalekuak, liburutegia...) eta beraien ongi moldatzen naiz, baina nire buruari oraindik esperientzia falta nabari diot, beti aisialdian ibiltzen naizelako eta ez eskola munduan. Oraindik ikasteko eta praktikan jartzeko asko dudala ikusten dut.

Egin dudana GrALari erreparatuz, hezkidetza eskoletan lantzea beharrezkoa dela argi geratu da eta hau praktikara eramango dut eskola batean lanean hasten naizenean. Lehen Hezkuntzako irakaslea naiz eta hau amaitzean Haur Hezkuntzako ere izango naiz, beraz, adin tarte handia da landuko dudana, baina biak zaizkit interesgarri eta ikasten jarraituko dut beste hainbeste gauzen artean irakasleak beti ikasten jarraituko dugulako, eguneratzen eta ikasleentzat hoberena egiten. Hezkidetzarako ipuinak zeintzuk diren eta beraien ezaugarriak zeintzuk diren ikasi dut, ipuin sexisten aurrean zer egin ere badakit orain eta behar-beharrezkoa dela iruditzen zait.

Ipuinen inguruan ikertu dut, beraz ikertzen eta generoaren gaia lantzen jarraituko banu, haur antzerkia eta generoa ikertuko nuke hurrengoan (aurretik esan bezala jakin-minez geratu naizelako), jolas hezkidetzailleak, ikasle-ikasle harremanak, ikasle-irakasle harremanak eta irakasle-irakasle harremanak ere aztertuko nituzke ikasleentzat eta inguruarentzat ahal dudana hoberena egiteko. Generoaren gaia ikertzeko oso gai garrantzitsua da, beste hainbat bezala, baina azken finean interesak mugitzen gaitu gauza berriak ikastera eta niri asko interesatzen zaidan gai bat da genero berdintasunarena. Sakontzen jarraituko dudala argi dut, nondik nora joko dudana ez dakit, egoeraren, eskolaren eta nire motibazioaren arabera izango delako. Orain lan egiteko eta ofizialki irakasle izateko gogo handia dut, egunetik egunera inoiz baino argiago dudalako hauxe dela nire lanbidea eta duela sei urte aukeraketa egokia egin nuela. Gero, gerokoak.

8- BIBLIOGRAFIA

Acosta, A. (2019). *Gora koloretako azazkalak*. Bilbo: Mezulari.

Aguilar, L. (2008). *Tximeleta-belarriak*. Iruña: Pamiela.

Aizpurua, I., eta Lasarte, G. (2015). Literatura eta generoa Haur Hezkuntzan: Bizkaiako Haur Eskola baten azterketa. *Tantak*, 27(2), 46-49.

Alberdi, U. (2013). *Txikitzen zaretenean*. Iruña: Pamiela.

Almagia, K. (2009). La transmisión de valores en los cuentos. Cuentos infantiles y roles de género. *Emakunde* 75, 20-23. 2019ko abenduaren 16an berreskuratua

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/sen_revista/eu_emakunde/adjuntos/emakunde75.pdf webgunetik.

Alvarez-Uria, A. (2005). Euskal emakume idazleen lekua literaturaren historian. *Jakin* 148, 37-74.

Alvarez-Uria, A. (2013). Glosategia. *Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak*. Donostia: Edo!. 2020ko urtarrilaren 5ean berreskuratua

http://argitaletxeaedo.org/wp-content/uploads/2017/06/genero_ariketak.pdf webgunetik.

Amuriza, M. (2016). *Bainera bete itsaso*. Donostia: Elkarlanean.

Artieda, N. (2015). *Cuentos tradicionales vs cuentos coeducativos*. (GRAL). Madril: UNIR. 2020ko urtarrilaren 5ean berreskuratua

<https://reunir.unir.net/bitstream/handle/123456789/3387/ARTIEDA%20HORNA%2c%20NOE%20LIA.pdf?sequence=1&isAllowed=y> webgunetik.

Arrazola, E. La literatura infantil hacia la igualdad de género. Cuentos infantiles y roles de género. *Emakunde* 75, 28-31. 2019ko abenduaren 16an berreskuratua

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/sen_revista/eu_emakunde/adjuntos/emakunde75.pdf webgunetik.

Barbé i Serra, A eta Carro, S. (2012). *Kili-kiliak*. Bartzelona: Bellaterra.

- Bonilla, R. (2018). *Neba-arrebak*. Valentzia: Algar.
- Brenman, I. (2011). *Printzesek ere puzker egiten dute*. Valentzia: Algar.
- Browne, A. (2006). *Kezkamuxelak*. Iruña: Pamiela.
- Browne, A. (2006). *Urdaburutarrak*. Pontevedra: Kalandraka.
- Castaño, A. M. (2013). El alma de los cuentos. Los cuentos como generadores de actitudes y comportamientos igualitarios. Instituto Andaluz de la Mujer. 2020ko urtarrilaren 4an berreskuratua
<https://web.ua.es/es/unidad-igualdad/secundando-la-igualdad/documentos/actua/educacion-infantil/el-alma-de-los-cuentos.pdf> webgunetik.
- Colomer, T. (1994). A favor de las niñas. *CLIJ*, 7(57), 7-24.
- De Dios, O. (2013). *Munstro arrosa*. Madril: Denonartean.
- Diez, J. (2009). Maldito príncipe azul. Cuentos infantiles y roles de género. *Emakunde* 75, 17-19. 2019ko abenduaren 16an berreskuratua
https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/sen_revista/eu_emakunde/adjuntos/emakunde75.pdf webgunetik.
- Etxaniz, X. (2007). *Literatura eta ideologia*. Donostia: Utriusque Vasconiae. 61-80.
- Ezezaguna. (2009). El poder de las ilustraciones. Cuentos infantiles y roles de género. *Emakunde* 75, 32-35. 2019ko abenduaren 16an berreskuratua
https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/sen_revista/eu_emakunde/adjuntos/emakunde75.pdf webgunetik.
- Fernández, V. (2015). Neskantilak gutxiengoa edo gehiengoa?. *Behinola*, (32), 7-56.
- Ferreira, C. (2017). El personaje en el cuento maravilloso: la subversión de arquetipos femeninos de brujas, princesas y hadas. *Anuario De Investigación En Literatura Infantil Y Juvenil (ANILIJ)*, 15, 41-54.
- Gabiria, J. (2009). Haur literaturako rolak eta gizarte eredu berriak. *Emakunde*, (75), 14-17. 2019ko abenduaren 16an berreskuratua

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/sen_revista/eu_emakunde/adjuntos/emakunde75.pdf webgunetik.

Goitia, A ; Hernandez, S ; Llantada, N; Marcos, C eta Medrano, B. (2016). *Ipuinak ez sexistak izateko gida*. Bizkaia: Urtxintxa eskola.

Imaz, V. (2009). Lo que cuentan los cuentos. Cuentos infantiles y roles de género.

Emakunde 75, 24-27. 2019ko abenduaren 16an berreskuratua

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/sen_revista/eu_emakunde/adjuntos/emakunde75.pdf webgunetik.

Lacunza, O. (2013). Hezkidetza pertsonaren garapen integrala helburu. (GRAL). Iruñea:

UPNA. 2019ko abenduaren 18an berreskuratua

<https://academica-e.unavarra.es/bitstream/handle/2454/8180/HEZKIDETZA.pdf?sequence=1&isAllowed=y> webgunetik.

Lasarte, G. eta Hernández, L. (2017). Cien libros para una propuesta de biblioteca infantil móvil y co-educativa. *Anuario De Investigación En Literatura Infantil Y Juvenil (ANILIJ)*, 15, 67-80.

López, N. (2009). *Marizipriztinek ez du zorioneko galeperrik nahi*. Tafalla: Txalaparta.

Martinez, I. (2016). *Zerua gris dago*. Iruña: Pamiela.

Marquez, P. (2017). Estereotipos de género en cuentos infantiles tradicionales. IN Cabrera, M eta Lopez, J.A. (ed). IX. Congreso Virtual Sobre Historia de las Mujeres. 461-490. 2019ko abenduaren 14an berreskuratua <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6202351> webgunetik.

Martirena, D. (2017). *Jonek Jone izan nahi du*. Iruña: Katakarak.

Obiols, A. (2003). *Afrika eta koloreak*. Irun: Tarttalo.

Ortiz, I. (2015). *La transmisión de los roles de género en los cuentos infantiles*. (MAL).

Leioa: EHU. 2019ko abenduaren 26an berreskuratua

<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/15419/Irune%20Ortiz%20Txabarri%20MAL.pdf?sequence=1&isAllowed=y> webgunetik.

Pascual, I. (2014). Personajes femeninos en el teatro para la infancia y la juventud: una experiencia. *Dossiers Feministes*, 19, 57-73.

Pérez, I. (2018). El teatro como herramienta pedagógica en el aula de educación infantil.

(GRAL). Leioa: EHU. 2020ko urtarrilaren 15ean berreskuratua,

https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/31477/GRAL_Irene_Perez.pdf?sequence=2&isAllowed=y webgunetik.

Perrin, C. (2018). *Gaiztoak*. Madril: Maeva.

Rebolledo, M. (2009). Siete rompecuentos para siete noches. Guía didáctica para una Educación No Sexista dirigida a madres y padres. Dirección general de la mujer.

Vicepresidencia. Gobierno de Cantabria. 2020ko urtarrilaren 4an berreskuratua

<https://web.ua.es/es/unidad-igualdad/secundando-la-igualdad/documentos/actua/educacion-infantil/siete-rompecuentos.pdf> webgunetik.

Richardson, J. (2005). *Tango iritsita hiru dira*. Iruñea: Kalandraka eta Pamiela.

Ros, E. (2012). El cuento infantil como herramienta socializadora de género. *Cuestiones Pedagógicas* (22), 329-337.

Rubió, S. (2014). Elementos y estereotipos de género en los cuentos tradicionales. (GRAL).

Bartzelona: UNIR. 2019ko abenduaren 18an berreskuratua

<https://reunir.unir.net/bitstream/handle/123456789/2618/rubio%20godoy.pdf?sequence=1&isAllowed=y> webgunetik.

Sanchez, D. F. (2015). *Bi txori*. Donostia: Tarttalo.

Sancho, N. (2012). Sexologia hiztegia. Bilbo: EHU. 2019ko abenduaren 18an berreskuratua

https://www.ehu.eus/documents/2660428/2682118/Sexologiako_Hiztegia.pdf webgunetik.

Sartelli, S.L (2018). Los roles de género en cuentos infantiles: perspectivas no tradicionales.

Derecho y Ciencias Sociales 18,199-218.

Subirats, M. (1994). Conquistar la igualdad: la coeducación hoy. *Revista Iberoamericana de Educación*, 6, 49-78.

Turin, A. (1976). *Arturo eta Klementina*. Pontevedra: Kalandraka eta Pamiela.

Turin, A. (1976). *Arrosa eta leuna*. Pontevedra: Kalandraka eta Pamiela.

Turin, A. (1995). *Los cuentos siguen contando*. Madril: Horas y horas.

Urtubia, I. eta Lasarte, G. (2014). Haur hezkuntzarako liburutegi proposamena: Ehun liburu mende baterako. *Ikastorratza*, 13, 1-11. 2019ko abenduaren 10ean berreskuratua <http://www.inguma.eus/produkzioa/ikusi/haur-hezkuntzarako-liburutegi-proposamena-ehun-liburu-mende-baterako?hizkuntza=es> webgunetik.

Wolff, F. (2008). *Ipuinen haria*. Bilbo: Tarttalo.

9- ERANSKINAK

I.ERANSKINA: HERRIKO LIBURUTEGIA



II.ERANSKINA: LIBURUTEGIA AZTERTZEKO BEHAKETA FITXA

II.1: Liburutegia aztertzeke lehenengo fitxa

Sexista da

Ez da sexista

4.taula: Liburutegia aztertzeke behaketa fitxa (bibliografia aztertu baino lehen)

BILDUMAREN IZENA	ARGITALETXEA ETA ARGITALPEN URTEA	SEXISTA DA? ERANTZUNA BAIEZKOA BADA, ZERGATIK?
Klasiko urdinak	Libsa (2000)	Bai, ipuin tradizionalak kontatzen dira
Nire klasikorik maiteenak	Ttarttalo (1996)	Bai, ipuin tradizionalak kontatzen dira
Walt Disney	Mugi-liburua (1991)	Bai, marrazkiak gehienbat
Disney enterprises, inc and pixar studios	Aizkorri (1999)	Bai, marrazkiak gehienbat
Teo	Timun mas (1987)	Bai, marrazkiak gehienbat, ama etxean eta aita lanean
Ibai	Timun mas (1988)	Bai, marrazki batzuetan ikus daiteke
Ikusi-makusi	Hordago (1980)	Liburu batzuk bai
Mari saila	Elkarlanean (2001)	Bai, ipuin tradizionalak kontatzen dira
Kamile	Ttarttalo (2005)	Ez da horren sexista
Urratsez	Ttarttalo (2004)	Bai, marrazkiak gehienbat, ama etxean eta aita lanean
Mendi sorgindua	Aizkorri (2003)	Ez
Kotoizko hodeia	Timun mas eta Ttarttalo (1994)	Bai, marrazkiak gehienbat, ama etxean eta aita lanean
Xanti eta Ane	Timun mas (1990)	Bai, marrazkiak batez ere
Ezkutaketan	Ttarttalo (2004)	Ez
Bubu	Ibaizabal (2007)	Bai, gizonezkoak joaten dira ahizatzeraz, emakumezkoek etxeko lanak...
Kroko	Ibaizabal (2007)	Ez



Txomin	Ibaizabal (2003)	Bai, marrazkiak
Kriski-kraska liburu jostariak	Ttarttalo (1998)	Ez
Nor bizi da?	Ttarttalo (2000)	Ez
Ekilore	Aizkorri (2007)	Bai, ipuin tradizionalak transmititzen dira.
Istorio barregarriak	Ttarttalo (1998)	Ez
Betiko ipuinak	Elkar (1997)	Bai, ipuin tradizionalak dira eta aspaldiko ohiturak eta baloreak transmititzen dituzte.
Untxi txiki zuria	Ibaizabal (2004)	Ez
Fermin eta Krixpin	Ttarttalo (2004)	Ez
Urrezko ipuinak	Ttarttalo (1999)	Bai, marrazkiak eta ekintzak
Kartoizko basetxea sorta	Librifher (1999)	Ez
Disney jarri zutik	Ttarttalo (1997)	Bai

IPUINAREN IZENA	ARGITALETXEA ETA ARGITALPEN URTEA	SEXISTA DA? ERANTZUNA BAI EZKOA BADA, ZERGATIK?
Neu naiz ederrena	Ttarttalo (2008)	Ez, nahiz eta ipuin tradizioaletako pertsonaiak agertu
Txomin ipurdi	Erein (2001)	Istoria berez ez da sexista, baina ez da neskarik agertzen ia ipuin osoan zehar. Istoria tradizionala da.
Osaba otso	Kalandraka (2000)	Ez
Piztiak bizi diren lekuan	Kalandraka (2000)	Ez
Martin zikin	Alberdania (2005)	Ez
Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo	Kalandraka (1999)	Ez
Untxitxo txuria	Kalandraka (2000)	Ez
Nola dastatu ilargia	Kalandraka (1999)	Ez
Hiru bidelapurrak	Kalandraka (2001)	Ez

II.II. Liburutegia aztertzeko II.fitxa

5.taula: Liburutegia aztertzeko behaketa taula berria (bibliografia aztertu ondoren)

1.IPUINA: Klasiko urdinak bilduma, Libsa argitaletxea (2000)

IPUINAREN IZENA: Gulliverren bidaiak		
PERTSONAIA NAGUSIEN EZAUGARRIAK:		
<ul style="list-style-type: none"> ● Etxean lan egiten duena? ● KALEAN egiten duena? ● Maitagarria/ sorgina/ aztia? ● Printzea/printzesa 	X X - X	X X - -
ILUSTRAZIOAK:		
<ul style="list-style-type: none"> ● Espazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Etxe barnekoa? ○ Kanpokoak? ● Animalien identifikazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Katua? ○ Txakurra? ● Amantala, erosketako orgatxoak ● Erratza, trapuak, garbitzeko tresnak ● Betaurrekoak ● Egunkaria/eskutitza/arbela ● Kartera edo maletatxoak ● Leihoa, dorrea 	X X - - X - X - X X X	X X - - - - X X -
PERTSONAIEKIN EKINTZAK:	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> ● Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? (ama etxeandrea, aita kanpoan) ● Genero estereotipoei erantzuten diete? (neskak esanekoak, mutilak ausartak) ● Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? ● Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? ● Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? ● Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? ● Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? 	X X 	 X X X X

2.IPUINA: Disney enterprises, inc and pixar studios bilduma, Aizkorri argialetxea (1999)

IPUINAREN IZENA: Toy story 2	♀	♂
PERTSONAIA NAGUSIEN EZAUGARRIAK:		
<ul style="list-style-type: none"> ● Etxean lan egiten duena? ● Kalean egiten duena? ● Maitagarria/ sorgina/ aztia? ● Printzea/printzesa 	- - - -	X - - -
ILUSTRAZIOAK:		
<ul style="list-style-type: none"> ● Espazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Etxe barnekoa? ○ Kanpokoak? ● Animalien identifikazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Katua? ○ Txakurra? ● Amantala, erosketako orgatxoak ● Erratza, trapuak, garbitzeko tresnak ● Betaurrekoak ● Egunkaria ● Kartera edo maletatxoak ● Leihoa, dorrea 	X X - - - - - - -	X X - - - - - -
PERTSONAIEKIN EKINTZAK	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> ● Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? (ama etxeandrea, aita kanpoan) ● Genero estereotipoei erantzuten diete? (neskak esanekoak, mutilak ausartak) ● Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? ● Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? ● Pertsona guztiak aukera berdina dituzte? ● Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? ● Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? 	X	X X X X X X

3.IPUINA: Teo bilduma, Timun Mas argitaletxea (1997)

IPUINAREN IZENA: Teo bidaiari	♀	♂
PERTSONAIA NAGUSIEN EZAUGARRIAK:		
<ul style="list-style-type: none"> ● Etxean lan egiten duena? ● Kanean egiten duena? ● Maitagarria/ sorgina/ aztia? ● Printzea/printzesa 	<p style="text-align: center;">X - - -</p>	<p style="text-align: center;">- X - -</p>
ILUSTRAZIOAK:		
<ul style="list-style-type: none"> ● Espazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Etxe barnekoa? ○ Kanpokoak? ● Animalien identifikazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Katua? ○ Txakurra? ● Amantala, erosketako orgatxoak ● Erratza, trapuak, garbitzeko tresnak ● Betaurrekoak ● Egunkaria ● Kartera edo maletatxoak ● Leihoa, dorrea 	<p style="text-align: center;">X X - - X X X X - -</p>	<p style="text-align: center;">X X - - - X X X X -</p>
PERTSONAIEN EZAUGARRIAK	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> ● Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? (ama etxeandrea, aita kanpoan) ● Genero estereotipoak erantzuten diete? (neskak esanekoak, mutilak ausartak) ● Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? ● Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? ● Pertsona guztiak aukera berdina dituzte? ● Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? ● Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? 	<p style="text-align: center;">X X</p>	<p style="text-align: center;">X X X X X</p>

4.IPUINA: Ikusi-makusi bilduma, Hordago argitaletxea (1980)

IPUINAREN IZENA: Amonatxo	♀	♂
PERTSONAIA NAGUSIEN EZAUGARRIAK:		
<ul style="list-style-type: none"> ● Etxean lan egiten duena? ● Kanean egiten duena? ● Maitagarria/ sorgina/ aztia? ● Printzea/printzesa 	X - - -	- - - -
ILUSTRAZIOAK:		
<ul style="list-style-type: none"> ● Espazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Etxe barnekoa? ○ Kanpokoak? ● Animalien identifikazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Katua? ○ Txakurra? ● Amantala, erosketako orgatxo ● Erratza, trapuak, garbitzeko tresnak ● Betaurrekoak ● Egunkaria ● Kartera edo maletatxo ● Leihoa, dorrea 	X - - - X X X - - X	- - - - - - - -
PERTSONAIEN EKINTZAK:	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> ● Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? (ama etxeandrea, aita kanpoan) ● Genero estereotipoei erantzuten diete? (neskak esanekoak, mutilak ausartak) ● Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? ● Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? ● Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? ● Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? ● Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? 	X X X	 X X X X

5.IPUINA: Kartoizko hodeia bilduma, Timun Mas eta Ttartalo argitaletxeak (1994)

IPUINAREN IZENA: Zenbat falta da nire urtebetetzerako?	♀	♂
PERTSONAIA NAGUSIEN EZAUGARRIAK:		
<ul style="list-style-type: none"> • Etxean lan egiten duena? • Kanean egiten duena? • Maitagarria/ sorgina/ aztia? • Printzea/printzesa 	<p style="text-align: center;">X - - -</p>	<p style="text-align: center;">- X - -</p>
ILUSTRAZIOAK:		
<ul style="list-style-type: none"> • Espazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Etxe barnekoa? ○ Kanpokoak? • Animalien identifikazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Katua? ○ Txakurra? • Amantala, erosketako orgatxoak • Erratza, trapuak, garbitzeko tresnak • Betaurrekoak • Egunkaria • Kartera edo maletatxoak • Leihoa, dorrea 	<p style="text-align: center;">X - X - X X - - - -</p>	<p style="text-align: center;">- X - - - - - -</p>
PERTSONAIEKIN EKINTZAK:	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> • Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? (ama etxeandrea, aita kanpoan) • Genero estereotipoak erantzuten diete? (neskak esanekoak, mutilak ausartak) • Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? • Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? • Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? • Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? • Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? 	<p style="text-align: center;">X X</p>	<p style="text-align: center;">X X X X</p>

6.IPUINA: Bubu bilduma, Ibaizabal (2007)

IPUINAREN IZENA: Bubu ehiztari	♀	♂
PERTSONAIA NAGUSIEN EZAUGARRIAK:		
<ul style="list-style-type: none"> ● Etxean lan egiten duena? ● Kanean egiten duena? ● Maitagarria/ sorgina/ aztia? ● Printzea/printzesa 	<p style="text-align: center;">X - - -</p>	<p style="text-align: center;">X - - -</p>
ILUSTRAZIOAK:		
<ul style="list-style-type: none"> ● Espazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Etxe barnekoa? ○ Kanpokoak? ● Animalien identifikazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Katua? ○ Txakurra? ● Amantala, erosketako orgatxoak ● Erratza, trapuak, garbitzeko tresnak ● Betaurrekoak ● Egunkaria ● Kartera edo maletatxoak ● Leihoa, dorrea 	<p style="text-align: center;">X - - - X X - - - -</p>	<p style="text-align: center;">- X - - - - - -</p>
PERTSONAIAIEN EKINTZAK:	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> ● Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? (ama etxeandrea, aita kanpoan) ● Genero estereotipoak erantzuten diete? (neskak esanekoak, mutilak ausartak) ● Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? ● Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? ● Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? ● Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? ● Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? 	<p style="text-align: center;">X X</p>	<p style="text-align: center;">X X X X</p>

7.IPUINA: Kamile bilduma, Ttartalo argitaletxea (2005)



IPUINEN IZENA: Kamile ametsetan	♀	♂
PERTSONAIA NAGUSIEN EZAUGARRIAK:		
<ul style="list-style-type: none"> ● Etxean lan egiten duena? ● Kanean egiten duena? ● Maitagarria/ sorgina/ aztia? ● Printzea/printzesa 	<p style="text-align: center;">X - - -</p>	<p style="text-align: center;">- X - -</p>
ILUSTRAZIOAK:		
<ul style="list-style-type: none"> ● Espazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Etxe barnekoa? ○ Kanpokoak? ● Animalien identifikazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Katua? ○ Txakurra? ● Amantala, erosketako orgatxoak ● Erratza, trapuak, garbitzeko tresnak ● Betaurrekoak ● Egunkaria ● Kartera edo maletatxoak ● Leihoa, dorrea 	<p style="text-align: center;">X - - - X - - - - -</p>	<p style="text-align: center;">- X - - - - - -</p>
PERTSONAIEN EKINTZAK:	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> ● Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? (ama etxeoandre, aita kanpoan) ● Genero estereotipoei erantzuten diete? (neskak esanekoak, mutilak ausartak) ● Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? ● Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? ● Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? ● Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? ● Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? 	<p style="text-align: center;">X X</p>	<p style="text-align: center;">X X X X</p>

8.IPUINA: Mendi sorgindua bilduma, Aizkorri argitaletxea (2003)

IPUINAREN IZENA: Basapiztia bat zopan	♀	♂
PERTSONAIA NAGUSIEN EZAUGARRIAK:		
<ul style="list-style-type: none"> ● Etxean lan egiten duena? ● Kanean egiten duena? ● Maitagarria/ sorgina/ aztia? ● Printzea/printzesa 	<p style="text-align: center;">X - - -</p>	<p style="text-align: center;">X - - -</p>
ILUSTRAZIOAK:		
<ul style="list-style-type: none"> ● Espazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Etxe barnekoa? ○ Kanpokoak? ● Animalien identifikazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Katua? ○ Txakurra? ● Amantala, erosketako orgatxoak ● Erratza, trapuak, garbitzeko tresnak ● Betaurrekoak ● Egunkaria ● Kartera edo maletatxoak ● Leihoa, dorrea 	<p style="text-align: center;">X - - - - - - -</p>	<p style="text-align: center;">X - - X - - - -</p>
PERTSONAIAIEN EKINTZAK:	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> ● Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? (ama etxeoandrea, aita kanpoan) ● Genero estereotipoak erantzuten diete? (neskak esanekoak, mutilak ausartak) ● Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? ● Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? ● Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? ● Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? ● Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? 	<p style="text-align: center;">- - X X X X</p>	<p style="text-align: center;">X X - - - -</p>

TAULA BATERATUEN EMAITZAK:	♀	♂
PERTSONAIA NAGUSIEN EZAUGARRIAK		
Etxean lan egiten duena?	7	3
Kalean egiten duena?	1	5
Maitagarria/ sorgina/ aztia?	-	-
Printzea/printzesa	1	-
ILUSTRAZIOAK		
Etxe barneko espazioa	8	3
Etxe kanpoko espazioa	3	7
Katuaren identifikazioa?	1	1
Amantala, erosketako orgatxoa?	6	1
Erratza, trapuak, garbitzeko tresnak?	4	1
Betaurrekoak?	3	2
Egunkaria?	1	1
Kartera edo maletatxoa?	1	2
Leihoa, dorrea?	2	1
PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira?	6	2
Genero estereotipoei erantzuten diete?	6	2
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? positiboak?	1	7
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak?	1	7
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte?	2	6
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute?	1	7
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte?	1	7

III. ERANSKINA: "ZURE GUSTUKO IPUINA" JARDUERA




PATATA

MALE N



PATATA



ALAITZ

NOA




NAHA





LEXUPI



KEZKA MUXELA



IV. ERANSKINA: HAURRENTZAT AUKERATUTAKO 20 IPUINAK:

1. IPUINA: Arturo eta Klementina



Egilea: Adela Turin

Ilustratzailea: Nella Bosnia

Argitaletxea: Pamiela eta Kalandraka

Urtea: 1976

Zer lantzen du? Emakumeak gizartean duen rolaz hausnartzera bultzatzen gaitu, gogor egiten die estereotipo sexistei, eta bazterkeria salatzen du.

Laburpena: "Neskatoen alde" bildumako ipuina da. Arturo etxetik kanpo lan egiten duen "gizonezko langilea" den bitartean, Klementina etxean geratzen den "emakume aspertua" delako. Klementinak eguna Arturoren zain pasatzen du eta honek opariak ekartzen dizkio, bere bizitza gero eta astunago egiten duen bitartean. Arturok psikologikoki keltetzen du eta klementina noizbehinka bere oskoletik ateratzen hasten da, askeago izan nahian, egun batean bere oskolera itzultzen ez den arte. Bizitza zoriontsuagoa du Arturo gabe eta gustura bizitzera joaten da.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rolak errepikatzen dira? bai, baina nahita egiten da hau. Emakumeak egun batean: nahikoa da! esan eta bere bizitza nahi duen bezala hasteko. Amaieran ez.	X	X
Genero estereotipoei erantzuten diete? hasieran bai, gero ez	X	X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, emakumearen bizimodua erabakitzeko eskubidea.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? bai, emakumeak indartu eta nahi duena egiten hasteko aldarrikapena luzatzen du ipuinak.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? hasieran ez, amaieran bai.	X	X
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzaila	Sexista
---------------	---------

2. IPUINA: Arrosa eta leuna



Egilea: Adela Turin

Ilustratzailea: Nella Bosnia

Argitaletxea: Pamiela eta Kalandraka

Urtea: 1976

Zer lantzen du? Genero berdintasuna lantzen du, emakume zein gizonezkoek berdina egin dezaketela defendatuz.

Laburpena: Ipuin honetako protagonista elefante txiki bat da. Elefante kume harrei nahi zutena egiten, jolasten, lokatzetan ibiltzen eta zuhaitzen azpian lokuluxka egiten uzten zieten beraien gurasoek. Emeak aldiz, itxitura batean sartzen zituzten eta kontuz ibili behar izaten zuten bertan, beraien txirikorda, zapata eta arropa arrosekin. Gainera, peoniak jaten egon behar izaten ziren arrosak eta lirainak izateko, handiak egitean elefante “dotore eta politak” izateko.


Gure protagonista eme txikia izan arren, grisa zen, eta ez zitzaion bere bizitza gustatzen. Harrak bezala kanpoan jolastu nahi zuen eta gustura bizi. Egun batean itxituratik irten eta oso gustura bizi izan zen handik aurrera. Beste elefantetxoek ere berdina egin zuten eta bai neskek eta baita mutilak ere oso gustura bizi izan ziren handik aurrera, nahi zutena egiten.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? bai, emakumeak hesi barruan, gizonezkoak kanpoan (hasieran).	X	X
Genero estereotipoei erantzuten diete? bai, hasieran neskek esanezkoak eta mutilak ausartak, libreak dira. Amaieran aldatu egiten da.	X	X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, emakumeen ahalduntzea.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? bai, bizimodu desberdinak aztertzeko aukera.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? hasieran ez, gero bai.	X	X
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzaila

Sexista

3. IPUINA: Afrika eta koloreak



Egilea: Anna Obiols

Ilustratzailea: Anna Obiols

Argitaletxea: Tarttalo

Urtea: 2003

Zer lantzen du? Laguntasunaz eta poztasuna lortzera animatzeaz hitz egiten du ipuin honek.


Laburpena: Afrika elefantea triste zebilen azken aldian dena gris-berde kolorekoa ikusten zuelako. Oihanetik atera eta bidaia bat egitea pentsatu zuen elefanteak eta horretarako bere lagunak globo bat egiten lagundu zioten. Mundu guztian barrena ibili zen eta leku bakoitzean kolore pote ezberdinak jaso zituen. Afrika eta oihanera oso pozik itzuli zen eta iritsitakoan bere lagunekin batera kolore horiekin oihan osoa margotu zuten, beraiek barne. Guztia margotutakoan oso pozik geratu ziren. *“Mundua kolorez beteta dago”*.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rolak errepikatzen dira? ez.		X
Genero estereotipoei erantzuten diete? ez.		X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, laguntasuna bultzatzen du.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak?bai.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? bai noski.	X	
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzalea

Sexista

4. IPUINA: Tango iritsita hiru dira



Egilea: Justin Richardson

Ilustratzailea: Peter Parnell

Argitaletxea: Pamiela eta Kalandraka

Urtea: 2005

Zer lantzen du? Bikote eta familia desberdinak erakusten ditu, pingüino batzuen istorioa kontatuz.


Laburpena: Roy eta Silo bi pingüino har dira, guztia batera egiten dutenak, eta asko maite dira. Neska eta mutilak familiak sortzeko elkartzen direnean, Roy eta Silok ere beraien familia sortu nahi dute. Zaindariak pingüino bikote bati arraultza bat kendu eta hauei eman zien beraiena izango balitz bezala zaintzeko, eta bertatik jaio zen Tango txikia.

Familia desberdina izan arren izugarri maite dute beraien umetxoa eta oso pozik bizi dira beraien lagunekin Nueva Yorkeko "Central Park"-eko zoonan.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rolak errepikatzen dira? ez.		X
Genero estereotipoei erantzuten diete? ez.		X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, bikote homosexualeen haurraak izateko eskubidea aldarrikatzen du ipuin honek.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? bai.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? bai.	X	
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzaila	Sexista
---------------	---------

5. IPUINA: Urdaburutarrak



Egilea: Anthony Browne

Ilustratzailea: Anthony Browne

Argitaletxea: Kalandraka

Urtea: 2006


Zer lantzen du? Familia bateko etxeko lanen inguruan hitz egiten du.

Laburpena: Urdaburu jauna, andrea, Jon eta Josu batera bizi ziren etxe eder batean. Urdaburu andreak guztien zikinkeriak garbitu, bazkaria prestatu, etxea garbitu eta abar egiten zuen eta senarrak zein semeek ez zuten bere lana eskertzen eta ezta baloratzen ere. Egun batean amak etxetik alde egin eta bakarrik utzi zituen bere senarra eta semeak etxean. Platerak pilatzen, arropa zikintzen eta etxeko anabasa handitzen ari zen apurka etxea txerritoki bihurtuz eta momentu batean beraien gisa antolatzeko momentua iritsi zen, ezin zutelako horrela jarraitu. Orduan konturatu ziren amak egiten zuen lanaz eta ama itzuli zenetik aurrera harrikoa eta oheak egiten dituzte, lisatu, janaria prestatu eta etxeko lanak banatzen dituzte guztien artean.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? hasieran bai. Amak etxean lan egiten du eta semeak zein senarrak ez dute baloratzen, etxetik alde egitea erabakitzen duen arte.	X	X
Genero estereotipoak erantzuten diete? hasieran bai, ama beti etxean dagoelako bere familiakoentzat lan egiten, amaieran guztien artean banatzen dituzte lanak.	X	X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, etxeko lanak guztienak direla erakusten du, ez emakumearenak edo amarenak.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? bai noski.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? hasieran ez, amaieran bai.	X	X
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzaila	Sexista
---------------	---------

6. IPUINA: Kezkamuxelak



Egilea: Anthony Browne

Ilustratzailea: Anthony Browne

Argitaletxea: Pamiela

Urtea: 2006

Zer lantzen du? Haurren lotarako momentuko beldurrak eta kezkak landu eta irtenbidea ematen die.

Laburpena: Ibai oso kezkatuta joaten zen lotara, gauza askok kezkatzen baitzuten. Bere gurasoak lasaitzen saiatzen ziren, baina ez zuten lortzen eta kezkak egonezin handia sortzen zioten. Egun batean amonaren etxera joan zen lotara eta amonak kezkamuxel batzuk ekarri zizkion. Kezkamuxelei bere kezkak azaldu eta kuxin azpian sartuta, Ibaik lo egiten zuen bitartean bere kezkak arduratuko ziela esan zion. Amonak esan bezala egun batzuetan oso ongi egin zuen lo, baina egun batean ezin izan zuen lo hartu, kezkamuxelek kezkatzen baitzuten. Ibaiken kezka guztiak beraien gain hartu zituztenez, kezkamuxel gehiago sortu zituen zituen lehendik zituen kezkamuxelentzako. Handik aurrera Ibaiek eta bere lagunek oso lasai egin zuten lo.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? ez.		X
Genero estereotipoei erantzuten diete? ez.		X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, neskak zein mutilek beldurrak izaten dituztela adierazten du.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? bai.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? bai.	X	
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzalea	Sexista
---------------	---------

7. IPUINA: Bi txori



Egilea: Diego Francisco Sanchez

Ilustratzailea: Diego Francisco Sanchez

Argitaletxea: Tarttalo

Urtea: 2015

Zer lantzen du? Inbidiaren gaia lantzen du, beti besteak baina gehiago nahi izatearena, ona ez dela azpimarratuz.

Laburpena: Hitzik gabeko ipuina izan harren, oso ongi azaltzen du marrazkien bidez esan nahi duena. Zuhaitz handi bat agertzen da, eta alde bakoitzean txori bana. Txori batek objektu bat ekartzen du eta aldamenekoak inbidiatan beste bat. Horrela zuhaitzaren alde banak objektuz betetzen joaten dira, pisuaren erruz zuhaitza erortzen den arte.

Oso ipuin ikusgarria da eta umeekin lantzeko egokia, bide batez gizarteari kritika txiki bat eginez.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rolak errepikatzen dira? ez.		X
Genero estereotipoei erantzuten diete? ez.		X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? zeharka egiten du hau, generorik gabeko pertsoniak direlako protagonistak.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? bai.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? bai.	X	
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzaila

Sexista

8. IPUINA: Tximeleta-belarriak



Egilea: Luisa Aguilar

Ilustratzailea: André Neves

Argitaletxea: Pamiela

Urtea: 2008

Zer lantzen du? Bakoitzak bere burua onartu eta errespetatzea lantzen du.


Laburpena: Maddiri iseka egiten zioten beste ume batzuek. Istorioaren hasieran “belarri-handi” deitzen zioten eta Maddi bere amarengana joan zen belarri handiak ote zituen galdetzera. Honek tximeleta belarriak zituela azaldu zion *“belarri bereziak dira, buruan tximeletak bezala hegaka ibili eta gauza itsusiak mila kolorez margotzen dituztenak”*. Handik aurrera Maddiri iseka egiten ziotenero honek “arazoari” buelta eman eta bere alde ona adierazten zuen. Amaiera oso polita du ipuinak.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rolak errepikatzen dira? ez.		X
Genero estereotipoei erantzuten diete? ez.		X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, neskato batek isekak jasaten ditu bere lagunengandik eta hortik balore positiboak ateratzen ditu berak.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? bai.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? bai.	X	
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzaila

Sexista

9. IPUINA: Ipuinen haria



Egilea: Ferida Wolff

Ilustratzailea: Harriet May Savitz

Argitaletxea: Ttartalo

Urtea: 2008

Zer lantzen du? Herritarren arteko laguntasunaren inguruan hitz egiten du.

Laburpena: Babba Zarrah herri txiki bateko umeen ipuin kontalaria da. Manta koloretsu baten gainean esertzen dira umeak ipuinak entzuteko, baina egin batean Babba Zarrah ume batek galtzetan zuloa duela ikusten du eta herritarren artile faltaz ohartzen da. Pixkanaka bere mantako artilea aprobetxatzen hasten da, herritar bakoitzari behar duen arropa egiten joateko opari moduan.


Egunero opari berriak agertzen dira herritarren artean (bufanda, eskularruak, mantak) eta guztiak intrigaturik daude opari horiek nork egingo dituen jakitearren. Artilea aztertu ondoren, Babba Zarrahren mantaren estanpatu bera dela ohartzen dira eta herritarrek eskertzeko oparien artile zati bana hartu, guztiak elkartu eta berari oparitzen diote, batere gabe geratu denez, berak ere zati bat izateko.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? ez.		X
Genero estereotipoei erantzuten diete? ez.		X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, herri bateko biztanleen laguntasuna erakusten du.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? bai, eskuzabaltasuna erakutsiz.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? bai.	X	
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzaila

Sexista

10. IPUINA: Printzesek ere puzker egiten dute



Egilea: Ilan Brenman

Ilustratzailea: Ionit Zilberman

Argitaletxea: Algar

Urtea: 2011

Zer lantzen du? Puzkerrak guztiok botatzen ditugula adierazten du eta bide batez printzesen idealizazio eta perfekzioa ez dela existitzen adierazi.

Laburpena: Laurak eskolatik bueltan aitari galdetu zion ea printzesek puzker egiten zuten ala ez. Honek baiezkotan zegoela erantzun zion, eta etxeko liburutegira joango zirela baieztatzen. Bertan liburu zahar bat aurkitu zuen aitak *“printzesen liburu sekretua”*. Munduko printzesa ospetsuen inguruko gauza ezkutuak kontatzen ditu liburu zahar horrek eta kapitulu bat du *“munduko printzesa xarmangarrienen arazo gastrointestinalak eta flatulentziak”* izenekoa. Kapitulu horretan Errauskineren, Edurne Zuriren eta Sirenatxoaren ipuinetan kontatzen ez diren puzker sekretuez hitz egiten da.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? ez.		X
Genero estereotipoei erantzuten diete? ez, printzesek puzker egitea inongo ipuinetan ez da ikusi eta ideia berri nahiz estereotipo apurtzailea da.		X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, inoiz planteatu gabeko gaia ateratzen da.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? bai.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? bai.	X	
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzaila	Sexista
---------------	---------

11. IPUINA: Munstro arrosa



Egilea: Olga de Dios Ruiz

Ilustratzailea: Olga de Dios Ruiz

Argitaletxea: Denonartean

Urtea: 2013

Zer lantzen du? Ipuin honen bitartez ikasleen inklusioa eta onarpena landu ditzakegu, garen bezalakoak izateagatik maitatuak sentitzea oso polita dela adierazten digulako.


Laburpena: Munstro arrosa jaio aurretik ere besteen desberdina zen. Beste guztiak zuriak, txikiak eta berdinak ziren bitartean, hau arrosa, handia eta desberdina zen. Ezin izaten zuen bere poztasuna beste animalia zuri serioekin elkarbanatu eta guztia zuria zenez, mundu hori bere lekua ez zela sentitzen zuen.

Egun batean bidaia bat egitea erabaki zuen. Bidaia horretan animalia ezberdin asko ezagutu zituen, kolore eta ezaugarri ezberdinetakoak, kolore gehiago ezagutu zituen eta lagun berriekin oso ongi sentitzen zen, ongietorri polita egin baitzioten. Beraiek desberdinak izan harren, ezberdintasun horiek oso aberasgarritzat hartzen zituzten. Beraz, han geratzea erabaki zuen, lehengo lekuan baina gusturago eta maitatuago sentitzen zelako herrialde berrian.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? ez.	X	X
Genero estereotipoei erantzuten diete? ez.	X	X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, bakoitzak nahi duena egiteko eskubidea erakusten du.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? bai.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? bai, guztiek.	X	
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzaila Sexista

12.IPUINA: Gaiztoak



Egilea: Clotilde Perrin

Ilustratzailea: Clotilde Perrin

Argitaletxea: Maeva

Urtea: 2018

Zer lantzen du? Ipuinetako gaiztoen sekretuak lantzen ditu.

Laburpena: Ipuinetako gaiztoak ez ditugu ezagutzen normalean, eta liburu handi honek pertsonai batzuen sekretuak gordetzen ditu. Otsoa, haur-jalea eta sorgina agertzen dira formatu handian eta istorioko protagonista hauek ezagutzeko aukera dute umeez. Oso liburu dibertigarria eta desberdina da, duen formatu eta jolasagatik. Irakurtzeko baduen arren, curiositatea pizten du eta azken finean betiko pertsonaien inguruan hitz egiten du, modu desberdinean.



PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rolak errepikatzen dira? ez.		X
Genero estereotipoei erantzuten diete? ez.		X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, ipuinetako gaiztoak ezagutzeko aukera zabaltzen da.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak?bai.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? bai, gainera pertsonaia bakoitzaren inguruko sekretuak kontatzen ditu, beldurra eman ohi duten pertsonaiak hobeto ezagutu eta beraienganako beldurra gainditzeko.	X	
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai, irudiak oso desberdinak dira, erliebedunak direlako eta ikasleek manipulatu egin ditzaketelako.	X	

Hezkidetzaila

Sexista


13. IPUINA: Bainera bete itsaso



Egilea: Miren Amuriza Plaza
Ilustratzailea: Irati Eguren Arruti
Argitaletxea: Elkarlanean S.L
Urtea: 2016

Zer lantzen du? Mararen gogoak, ametsak eta lasaitasuna lantzen ditu.


Laburpena: Mara korrika eta presaka bizi den neskato bat da. Gurasoek ez die bere momentua eta espazioa bizitzen uzten eta lasaitasuna nahi eta behar du. *“Mara! Mara! oihukatzen dioten bakoitzean, airea falta haurrari”*. Korrika komunera joan eta baineran sartzen denean urpean murgildu eta bere munduan sartzen da Mara. Orduan lortzen du lasaitasuna, bere “bainera bete itsasoan”.



PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? ez.		X
Genero estereotipoei erantzuten diete? ez.		X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, haur baten lasaitasuna lortzeko gogoak eta modua adierazten ditu ipuinak.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat lutzatzen du ipuinak? bai.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? bai.	X	
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzalea	Sexista
---------------	---------

14. IPUINA: Zerua gris dago



Egilea: Isak Martinez

Ilustratzailea: Liébana Goñi

Argitaletxea: Pamiela

Urtea: 2016

Zer lantzen du? Lasaitasuna, isiltasuna eta laguntasuna.

Laburpena: Elurpean dagoen herrixka batean gertatzen da istorioa. Dena isilik dago eta elurrak zapaltzean egiten duen hotsa, kanpaien hotsa eta kaleko hotsak entzuten dira album isil honetan. Normalean entzuten jartzen ez garen zaratak entzun ahal izango dira eta horrek egiten du magiko. Protagonistak neskato eta mutiko bat dira, apurka denbora pasatzen den heinean lagun egiten joaten direnak. Adiskidetasun baten sorrera kontatzen du, baina generoak eragindako aurreiritzien kontrako aldarrikapen bat azaltzen digu atzetik, laguak neskak edo mutilak izan berdin izango diolako.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rolak errepikatzen dira? ez.		X
Genero estereotipoei erantzuten diete? ez, neska nahiz mutila berdinak dira.		X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, neska mutilen arteko laguntasuna.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak?bai.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? bai.	X	
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai, isiltasunarekin lotutako irudiak adierazten dira ipuinean zehar. Istorioa girotzen dute.	X	

Hezkidetzaila

Sexista

15. IPUINA: Jonek Jone izan nahi du



Egilea: Dani Martirena

Ilustratzailea: Ana Ibañez

Argitaletxea: Katakarak

Urtea: 2017

Zer lantzen du? Poesiadun eta formatu ezberdina duen ipuin hau umeekin transexualitatearen gaia normaltasunez jorratzeko ipuin polit zein interesgarria da.

Laburpena: Liburu honek akordeoi forma du eta tolesdura bakoitzean kartoi kaxa bat agertzen da. Jone protagonistak handitan zer izan nahi duen azaltzen du 14 kutxetan zehar: kotxe gidaria, abioneta pilotu, marinela... istorioaren amaieran Jonek zakila duen neskatoa dela esaten du, baina beste ume guztiak bezalakoa dela. *“Baina handi izatera iritsi gabe, amets bat du bihotza beteta. Jon neska da, txiki txikitatik, oinutsik edo jantzita txaketa”.*



PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rolak errepikatzen dira? ez.		X
Genero estereotipoei erantzuten diete? ez.		X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, transexualitatearen gaiaren inguruan hitz egiten du ipuinak.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? bai.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? bai.	X	
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai, irudiak oso bereziak dira, erliebez sortuta daudelako goiko marrazkian ikusten den moduan.	X	

Hezkidetzaila

Sexista

16. IPUINA: Gora koloretako azazkalak



Egilea: Alicia Acosta

Ilustratzailea: Luis Amavisca

Argitaletxea: Mezulari

Urtea: 2019

Zer lantzen du? Ipuin honek beldurrei aurre egitearen garrantziaz eta adiskidetasunak duen balioaz hitz egiten digu.


Laburpena: Joni izugarri gustatzen zitzaion azazkalak margotzea eta kolore guztietakoak margotzen zituen. Egun batean eskolara iritsi eta bi mutikok iseka egin zioten, azazkalak margotzea nesken kontua zela esanez eta oso triste jarri zen. Gurasoei gertatutakoa kontatzean, aitak bera ere mutila zela eta azazkalak margotzen zituela esan zion. Biak kolore desberdinetako azazkalak margotu zituzten eta pozik sentitu zen berriro ere, eskolara joan eta berriro iseka egin zioten arte. Orduan asteburuetan bakarrik margotzen zituen eta astelgehenerako kenduta eta triste joaten zen eskolara. Jonen urtebetetze eguna iritsi zenean, hau gelara sartzean bere lagun eta irakaslea zain zeuden, eta guztiek azazkalak margotuta zituzten. Hura izan zen Jonen urtebetetze hoberena.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? hasieran sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira, baina amaieran gainditu egiten dira.	X	X
Genero estereotipoei erantzuten diete? hasieran bai, amaieran ez.	X	X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, guztion nahiak errespetatzen erakusten du ipuinak.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? bai.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? aukerak izan bai, baina epaituak izan dira hasieran, beraz baietz eta ezetz esan daiteke. Gero horri buelta eman zaio.	X	X
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzalea

Sexista

17. IPUINA: Neba-arrebak



Egilea: Rocio Bonilla

Ilustratzailea: Rocio Bonilla

Argitaletxea: Algar

Urtea: 2018

Zer lantzen du? Anai-arreben arteko erlazioaren inguruan hitz egiten du ipuinak.

Laburpena: Bi aldeetatik irakurri daitekeen ipuina. Alde batetik hasita anaiaren bertsioa agertuko da eta bestetik arrebarena. Anai-arreben egunerokotasuna erakusten du, askotan beraiek gabe lasaiago biziko zirelako pentsatzen delako, baina gero haiek gabe zer egingo ote luketen. Oso ipuin dibertigarria da eta ulerkorra da, pertsonaien azalean jartzea oso erraza delako. Ipuinaren erdira iristean, sorpresa bat adieraziko dute: hirugarren anaia bat datorkie! Eta ez die grazia handirik egiten.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rola errepikatzen dira? ez.		X
Genero estereotipoei erantzuten diete? ez, neba-arrebek gehien gustatzen zaiena egiten dute neska edo mutilak izan.		X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, neba-arreben arteko maitasuna adierazten da.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? bai.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? bai.	X	
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzaila

Sexista

18. IPUINA: Txikitzen zaretenean



Egilea: Uxue Alberdi

Ilustratzailea: Aitziber Akerreta

Argitaletxea: Pamiela

Urtea: 2013

Zer lantzen du? Haurren eta helduen mundua ikusteko eraren inguruan hitz egiten du ipuin original honek.

Laburpena: Gurasoek garrantzia lanari eta etorkizunari ematen dioten bitartean, umeei beste modu batera ikusten dute beraien egunerokoa eta interesak. Putzuetan jauzi egin nahi izaten dute, masustak biltzea gustatzen zaie, animaliekin hitz egin eta abar.

Interesgarria da ipuinak nola adierazten duen heldu zein haurrak elkarren ondoan bizi direla, baina ez elkarrekin. Beraz, idazleak haurrei heldu izateko presarik ez izatera eta helduei haurrak zireneko inozentzia berreskuratzera animatzen ditu.


Umeen ilustrazioak kolore biziz agertzen dira helduena kolore gris eta ilunez agertzen den bitartean.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rolak errepikatzen dira? ez.		X
Genero estereotipoei erantzuten diete? ez.		X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, balore positibo mordoak ditu ipuin honek eta genero aldetik berdintasun totala erakusten da istorio guztian zehar.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? bai.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? bai.	X	
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzaila

Sexista

19. IPUINA: Kili-kiliak



Egileak: Alba Barbé i Serra y Sara Carro Ibarra

Ilustratzailea: Núria Fortuny Herrero

Argitaletxea: Ballaterra

Urtea: 2012

Zer lantzen du? Masturbazioaren gaia inoiz ez da landu izan, ezkutuko gauza bezala ikusi delako, ezkutatu beharrekoa, tapatu beharrekoa. Irak bere gorputzaren plazer desberdin bat ezagutzen du ipuin honetan zehar.

Laburpena: Ira eta Tona parkean jolasten diren bi neska dira. Beraien lagun batzuek beraiekin jolasteko magia behar dutela esaten diete eta Ira amonarekin etxera joaten denean, pastel bat egiten dute, prozesua magia egingo balute bezala hartuz. Gau horretan Ira ohera joaten denean eskuak magiaz beterik sentitzen ditu eta tximeletak gerritik behera. Tximeletarekin jolasean aritu eta beste magia mota bat deskubritzen du. Hurrengo egunean Irak bere sentrazio berezia azaltzen die bere lagun Tonari eta bere amonari. Amonaren erantzuna oso polita da eta askotan azaldu gabeko kontua adierazten digu, masturbazioarena.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rolak errepikatzen dira? ez.		X
Genero estereotipoei erantzuten diete? ez.		X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? masturbazioari buruz hitz egiten duen ipuin bat da eta oso polita da amona-biloba arteko harremanaren bidez erakusteko modua.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? bai.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? bai.	X	
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzaila

Sexista

20.IPUINA: Marizipritzinek ez du zorioneko galeperrik nahi



Egilea: Nulila López

Ilustratzailea: Myriam Cameros

Argitaletxea: Txalaparta

Urtea: 2009

Zer lantzen du? Ipuin moderno, errealista, dibertigarria eta itxaropentsua da. Emakume batzuen situazioa azaltzen digu, txikitan kontatu izan dizkiguten maitagarri ipuinak egi bihurtuko ez direla ohartzen diren emakumeena hain zuzen ere.

Laburpena: Marizipritzin, Errauskineren bertsio berri bat da. Bertsio honetan neskatila hau festara joan eta hurrengo egunean ez zen ezertaz ere gogoratzen, baina kristalezko zapata jantzi eta printzearekin ezkondu behar izan zuen. Ez zegoen gustura printzearen emaztea izateaz eta gaixorik, deprimituta bizi zen. *“Hainbeste urte printze batekin bizi ostean, konturatu zen printzeak ez direla salbabidea... kamioilariak ere ez, ez discjockey-ak, ez pasteleroak... alde batera utzi zituen errudun-sentimenduak eta barkatu egin zion bere buruari; orduan jakin zuen nork salba gaitzakeen...ZU ZEU zara”*. Marizipritzinek planto esan eta bere bizitzan gauza politak sartzeari ekin zion printzea utziz eta lagun berriak eginez. *“Orain pozarren daude elkar ezagutu dutelako, baina, aldi berean, oso haserre mendez mende ipuinetan eman izan zaien paperagatik: neskatila pasiboak, beti zain. PLANTO! ipuin berri bat hasi dute”*.

PERTSONAIEN EKINTZAK	BAI	EZ
Sexuari lotutako genero rolak errepikatzen dira? hasieran bai, Marizipritzin oso triste bizi zen emakumea izateagatik etxean lanak egiten geratu behar izaten zuelako, senarraren zerbitzari moduan, PLANTO! esan zuen arte.	X	X
Genero estereotipoei erantzuten diete? hasieran bai, gero ez.	X	X
Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituzte? balore positiboak? bai, emakumeak emakume izateagatik gauza batzuk egitera behartuak ez gaudela aldarrikatzen du.	X	
Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen du ipuinak? bai.	X	
Pertsona guztiak aukera berdinak dituzte? bai.	X	X
Pertsona moduan osotasunean garatzen laguntzen dute? bai.	X	
Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzte? bai.	X	

Hezkidetzaila

Sexista

V.ERANSKINA: ESKATUTAKO LIBURU GUZTIEN ZERRENDA

6.taula: Eskatutako liburu guztien zerrenda

HAURRAK

LIBURUA	EGILEAK	ARGITALETXEA
Arturo eta Klementina	Adela Turin	Pamiela eta Kalandraka
Arrosa eta Leuna	Adela Turin	Pamiela eta Kalandraka
Afrika eta Koloreak	Anna Obiols	Ttarttalo
Tango iritsita hiru dira	Justin Richardson	Pamiela eta Kalandraka
Urdaburutarrak	Anthony Browne	Kalandraka
Kezkamuxelak	Anthony Browne	Pamiela
Tximeleta belarriak	Luisa Aguilar	Pamiela
Ipuinen haria	Ferida Wolff	Ttarttalo
Marizipriztinek ez du zorioneko galeperrik nahi	Nulila López	Txalaparta
Printzesek ere puzker egiten dute	Ilan Brenman	Algar
Kili-kiliak	Alba Barbé i Serra y Sara Carro Ibarra	Ballaterra
Txikitzen zaretenean	Uxue Alberdi	Pamiela
Neba-arrebak	Rocio Bonilla	Algar
Gora koloretako azazkalak	Alicia Acosta	Mezulari
Jonek Jone izan nahi du	Dani Martirena	Kalakrak
Zerua gris dago	Isaak Martinez	Pamiela
Bi txori	Diego Francisco Sanchez	Ttarttalo
Bainera bete itsaso	Miren Amuriza Plaza	Elkarlanean
Gaiztoak	Clotilde Perrin	Maeva
Munstro arrosa	Olga De Dios Ruiz	Denonartean

GAZTE-HELDUAK

LIBURUA	EGILEAK	ARGITALETXEA
Aitaren etxea	Karmele Jaio	Elkar
Eskularru beltzak Ikasbidaia Ihes Castinga	Jasone Osoro	Elkar
Bizitza motor gainean	Xabier Mendiguren	Elkar
Zorioneko familia	Iñaki Irasizabal	Elkar
Derbia	Juan Mari Irigoien	Elkar
Mundu bat motxilan	Unai Ormaetxea	Sua
111 hostoz eta orriz jantzi	Jakoba Errekondo	Autor-editor
Martutene	Ramon Saizarbitoria	Bakanak
Animalia prehistorikoen entziklopedia	Carmen Rodriguez	Susaeta
Sorgin Belarra	Toti Martínez de Izeza	Erein
Superpatata 1: superpatataren jatorria superpatata 2: Zort III errege estraturlarra Superpatata 3: denboraren ataritxo	Artur Laperla	Bang ediciones / Mamut comics
Etxeak eta hilobiak	Bernardo Atxaga	Pamiela
Miñan	Amets Arzallus	Susa
Sasi guztien gaintik	Itziar Zubizarreta Ayerbe	Galtzagorri

VI. ERANSKINA: GURASO ETA HERRITARRENTZAT OHARRA

UMEENTZAKO SAIO BEREZIAK LIBURUTEGIAN:

Liburutegiko dinamizatzaileak antolatuta, hurrekin generoaren gaia lantzeko saio bereziak antolatuko dira otsailaren 28tik eta martxoaren 27ra bitarteko ostiraletan, (16:00-18:00), hezkidetzaren aldeko ipuin berriak oinarri, 2-12 urte bitarteko haurrentzat. Animatu!

OHARRA: mozorrotzeko arropa ekarri otsailaren 28an ahal duenak mesedez (erositako mozorroek ez dute balio, etxean dituzuen arropak poltxa batean sartu eta guztiok guztion arropak erabiliko ditugu).

VII.ERANSKINA: IPUINAK FAMILIAKA BANATUTA

7.Taula: Ipuinak familia ka banatuta

Ipuinaren izenburua	Zein familian kokatzen da? (Zein HHko esperientzia eremuekin egiten du bat?)
Arrosa eta Leuna	Ni
Afrika eta koloreak	Ni
Kezkamuxelak	Ni
Tximeleta-belarriak	Ni
Printzesek ere puzker egiten dute	Ni
Bainera bete itsaso	Ni
Jonek Jone izan nahi du	Ni
Kili-kiliak	Ni
Marizipritin	Ni
Tango iritsita hiru dira	Besteak
Urdaburutarrak	Besteak
Arturo eta Klementina	Besteak
Ipuinen haria	Besteak
Munstro arrosa	Besteak
Gaiztoak	Besteak
Gora koloretako azazkalak	Besteak
Neba-arrebak	Besteak
Zerua gris dago	Ingurunea
Bi txori	Ingurunea
Txikitzen zaretenean	Ingurunea

VIII. ERANSKINA: EGUNEROKOA

2020ko otsailaren 26a, asteazkena

Txokoak prestatu ditut:



Ikasleek tximeletak margotuko dituzten txokoa (musika gela)



1.txokoa: margarita lorea



2.txokoa: eguzkilorea



3.txokoa: larrosa lorea



3.txokoko zuhaitza

2020ko otsailaren 28a, ostirala

➤ IKASLEAK ETORRI AURRETIK:

Ikasleak etorri aurretik altxorra eta mozorrotzeko arropak zein zapiak prestatu nituen. Herriko eskolak bertan erabiltzen dituzten zapiak erabiltzeko aukera eman zuten, beraiek proposatuta, beraz aukera hau onartu eta etxetik ere arropak eraman ziren, bazaezpada ere, agian ikasleek ez zutelako aukera nahikoa ekarriko beraien etxeetatik. Horrez gain, badaezpada ere altxorra balkoian ezkutatu nuen, astia eman ezker txoko guztietatik pasatu ahal izateko.

➤ IKASLEEKIN:

Guztira 19 ikasle gerturatu ziren lehenengo saio berezira. Hauetako gehienak korrika etorri ziren misterioa argitzeko asmoz, astean zehar momentu horretarako gogotsu zeudela adieraziz. Mozorrotzeko arropa desberdin ugari ekarri zituzten ikasleek ere, eta 1.txokoan utzi nituen beraien margotzen entretenituta zeuden bitartean. Hasiera batetik tximeletak margotzerako orduan oso ongi funtzionatu zuen planeatuta zegoenak eta handienek bukatu bezain laster txikienei laguntzen hasi zitzairen. 30 bat minutu pasatu ziren lehenengo jarduera horretan eta margotzen ari ziren bitartean musikaren nondik norakoak azaldu zitzaizkien. Tximeletak hegan ibiltzen zirela adierazi zitzairen eta *Vivaldi*ren *Lau urtar*oak musika entzutean tximeletek hegan nola egingo zuten azaldu zitzairen. Txikienak oso pozik nabaritzen ziren, handienek apur bat lotxatuta begiratzen zuten bitartean, baina guztiek

berdina egiten zutenez, eta nola ez, hezitzaileak ere (beraiek baina zaharragoa) paperean sartu ziren. Musikarena azaldu eta bost minutu barru proba bat egin zitzairen musika jarrita, ea ongi ulertu ote zuten jakiteko eta bikain atera zen. Beraz tximeletak margotuta eta musikaren azalpena emanda, hurrengo aterantz hurbildu ginen.

Atearen beste aldera igaro aurretik azalpenak eman zitzaizkien. Atearen atzean beste mundu batean sartuko ginela adieraziz: Tximeleta hegalarien munduan. Tximeletei gehien gustatzen zaiena zer zen galdetzean segituan atera zen loreen kontua, beraz hau aprobetxatuz tximeletak txoko batetik edo lore batetik bestera pasatzen joango zirela adierazi zitzairen, musikak jotzen zuen momentuan bakarrik mugituz batetik bestera.

Gelaren beste aldera pasatu ginenean ikasleen harridura nabaritu nuen, zuhaitza asko gustatu baizitzairen eta egia esan, uste baina errazagoa izan zen musikaren laguntzaz ikasleak lehenengo txokoa jarri eta bertan mantentzea. Txokoko lorearen izena galdetu nien eta oso ongi erantzun zuten. Jarraian txoko horretako ipuina kontatu eta amaitzean guztiak zain nituen, mozorroak ikusten zituztelako eta oso gogotsu zeudelako horiekin zer egin behar genuen ikusteko. Hori baina lehen, ipuinaren inguruan hitz egingo genuela adierazi nien, galdera batzuk luzatuz: *“zuen ustez ongi egin al zuen elefantetxoak bere bizilekutik alde eginez? elefante neskak eta mutilak orain gusturago biziko dira guztiak batera? neskak eta mutilak berdinak gara?”* txikienek guztiak berdinak garela adierazten zuten eta ados zeuden elefantetxoek hesitik alde egitearekin. Nik aipatu gabe arroparen gaia atera zen eta 10 urteko neska batek adierazi zuen neskek gona jantzi behar izaten dugula batzuetan eta mutilek ez. Hori ez zitzaion justua iruditzen, berari ez zaizkiolako gonak gustatzen eta hortik nahiko hari potoloa atera zen, baina ikasle txikiak mugitzen hasi zirela ohartzen hasita nengoenez, hari horrekin jarraituz mozorroena lotu nuen: *“gure ipuineko elefantetxoa bezala, gu ere libreak gara nahi duguna egin, jan eta janzteko. Beraz, hemen dituzue mozorroak eta nahi duzuen bezala mozorrotu zaitzekete, nahi adina denbora utziko dizuet eta”*.

Momentu horretatik aurrera zoramena iritsi zen gelara. Ikasleak mozorrotzen, barrezka eta elkarri laguntzen ikusi nituen. Hasieran bakoitza arropa bat jantzi eta erantzi ibili zen, baina gustuko bat aukeratu zutenean harrigarria izan zen inprobisatuz sortutako antzerkiak ikustea. Ni alde batean jarri nintzen eta txikienei lagundu nien behar zutenean. Txikiak harrapatzen zutenarekin mozorrotzen ziren, baina LHko ikasleak behatzen hasi nintzenean, orduan konturatu nintzen bakoitzaren mozorroez. Mutilek betidanik izan dute neskaz mozorrotzeko inoiz ulertu ez dudana grina berezi hori, oso emakume estereotipatuez

mozorrotzen direlako askotan. Hauek ez horrenbeste, baina bai mutil batzuk neskez mozorrotu zirela bikini baten goiko zatia jarrita, soinekoak eta abar. Neska batzuk raperoez mozorrotu ziren, beste batzuk ezer berezitatez ez eta abar.

Hasieran antzerki txikiak sortu zituzten, taldetxotan sortutakoak. Motibatu zirenean plazara jaitsi eta gurasoei erakutsi zizkieten beraien mozorroak eta jarraian igo eta harriturik geratu nintzen sortu zituzten antzerkiekin. Ezkontza bat simulatu zuten eta ondoren DJ lanak egiten hasi ziren. DJ-ak mugikorra eskatu zidan eta youtuben euskal musika jartzeko kondizioarekin dantzan ibili ziren. Abestiak eskatzen zizkieten besteek DJari eta segurata eta guzti zuten. Dantzak kopiatzen ibili ziren eta benetako festa sortu zuten.

Berez orduan amaitu beharko litzateke saioa, baina oraindik 40 minutu genituenez eta DJ kontua luzatzen ari zenez, hurrengo asteko saioari ekitea pentsatu nuen, astia emango zigulako. Vivaldiren musika jarri eta ikasleen erreakzioen zain gelditu nintzen. Antzerkiarekin jolasten jarraitu nahi bazuten utzi egingo nieke, baina musika entzundakoan bakoitzak bere tximeleta hartu eta hurrengo txokorantz abiatu ziren nire atzetik.

Egia esan harriturik geratu nintzen, baina beraiekin eseri eta bigarren lorearen izena galdetu nien. *Gora koloretako azazkalak* ipuina irakurri ondoren azazkalak margotzea nori gustatzen zitzaien galdetu nien. Askok baiezkoa esan zuten, baina batere gustatu ez zitzaidan iruzkina entzun nuen orduan. 12 urteko mutil batek "*marikoiek*" margotzen zituztela esan zuen. Momentuan esan nion ez zitzaidala horrela iruditzen, gaur egun edonork margotu ditzakeelako, berak mozorrotu zenean gona jantzi zuen bezalaxe. Beste aldera begiratu zuen eta jarduerarekin jarraitu genuen aldamenekoa agurtuz eta zer moduz zeuden galdetuz. Aipatzekoa iruditzen zait iruzkin honen atzean dagoena, ikasle guztiak betidanik ezagutzen ditudalako eta ikasle horrekinxe justu duela urte batzuk zerbait gertatu zitzaigulako udalekuetan. Azazkalak margotu genizkien guztiei udalekuetan duela urte batzuk beste ekintza normal bat egiten ariko bagina bezala eta etxera joatean bere aitak gizonek azazkalak margotzen ez zituztela esan zion mutikoari eta baita hurrengo egunean begiraleei ere. Beraz, argi eta garbi dago nondik datorkion pentsatzeko modu hori, eta egia esan pena da horrelako gauzak pentsatzea aitak duela urte batzuk esandakoagatik, gustura margotzen baitzituen berak azazkalak orduan. Aipatzekoa iruditu zait, honekin bat zetorrela ikusi dudalako eta erabat komunikatuta daudelako bi ekintza eta pentsatzeko era hauek.

Azkenik berriro musika jarrita hirugarren txokora joan ginen. Tximeletak zuhaitzaren adarretan kokatu genituen eta handik aurrera tximeletak bertan geratuko zirela adierazi

zitzaien. Bertan bizitzako janaria eta lagunak beharko zituztela erantzun zuten eta oso erantzun polita eta ez materialista iruditu zitzaidan. Horren ondoren *bi txori* ipuina kontatu nien eta batzuei asko gustatu zitzaien arren, txikiak jada nahiko nekatuta eta mugitzeko gogoarekin ikusten nituen. Beraz nahiko azkar pasatu ginen hortik altxorra aurkitzera. Hurrengo pista altxorraren marrazkia izan zen eta altxor bat aurkitu beharko zutela esan nien, baina horretarako pista batzuk aurkitu beharko zituztela gela horretako lekuren batean. Altxorra hitza entzundakoan denok dakigu ikasleak aktibatu egiten direla eta gela guztitik hasi ziren pista baten bila. Bost urteko ikasle batek pentsatu zuen zuhaitzean egon zitekeela pista eta handi bati esan zion begiratzeko. Orduan aurkitu zituzten hosto eta tximeleten atzeko hizki ezkutuak eta hasierako zein azkeneko hizkiak esan behar izan nizkien, bestela ez zutelako asmatzen. Korrika joan ziren balkoira eta altxorra lortu zutenean, harriturik geratu nintzen, nik beste mota bateko erreakzioa espero nuelako. Ez zieten nik espero nuen garrantziarik eman altxorrari, hasieran apur bat kuxkuxeatu zituztelako ipuinak eta ondoren antzerkiekin jarraitu zutelako. Bakarrenbategi galdetu zidan ea libururen bat etxera eraman zezakeen, baina hurrengo astean beharko genituela erantzun nien eta saio hauek amaitzean eraman ahal izango zituztela.

Altxorra alde batera utzi eta antzerkiekin jarraitu zuten, jolasten, mozorroto eta arropa aldatzen eta oso gustura zeudela nabari zen. Denbora aldetik hobetoago ezin zela atera esan beharrean nago, 6etan puntuan amaitu genuelako eta nahiz eta ikasleak gustura zeuden eta jarraituko zuten, udaleko bilera bat zegoen eta gela behar zuten, beraz gauzak jaso eta joan egin behar izan genuen. Mozorroak beste gela batean gorde nituen hurrengo asteetarako antzerkia egiteko balioko zigutelako eta ipuin berriak liburutegira eraman eta leku berri batean kokatu genituen.





➤ **IKASLEAK JOAN ONDORENGO SENTSazioA:**

Orokorrean oso sentsazio onarekin geratu nintzen. Amaieran galdetu egin nien gustura sentitu ote ziren, zer gustatu zitzairen, zer aldatuko luketen eta abar eta nahiko balorazio positiboak atera ditut, beraiek beraientzat eskainitako saioak izanda gauza desberdinak egiteko aukera izaten dutelako. Generoaren gaia alor askotatik ukitu genuen saio horretan eta nahiz eta iritzietan salbuespen batzuk izan, denok ikasi genuen zertxobait.

2020ko martxoaren 6a, ostirala


➤ **IKASLEAK ETORRI AURRETIK:**

Haurren liburu kaxa mahai gainean utzi nuen eta baita helduena ere, zer egiten zuten ikusteko.

➤ **IKASLEEKIN:**

Ikasleak iritsi zirenean, liburutegian geundenez, automatikoki betiko liburutegiko erritmoa jarraitu zuten. Marrazkiak egiten hasi ziren, txikienek handienei ipuin berriak zein lehendik

zeudenak kontatzeko eskatu zieten eta niri ere ipuin berriak irakurtzeko eskatzen hasi ziren. Apur batean bakoitzari nahi zuena egiten utzi nien, saioen antolakuntza ongi zihoalako. Utzi nien denbora horretan oso ongi funtzionatzen zebiltzala ikusi nuen eta beraien kasa nahi zutena egiten utzi nien, bestela beraien erritmoa apurto eta gustura egiten zebiltzan gauza bat moztuko nukeelako. Ipuin berri batzuk nik kontatu nizkien eskatu zidatelako, beste batzuk ikasle handienek, eta ikasle txikienak ere ipuinak hartu eta bakarrik behatzen ikusi nituen. Noski ez zituztela ipuin berriak bakarrik ikusi, lehendik zeudenak ere ikusi baizituzten, baina oso ongi atera zen eta oso naturala izan zen saioa, nik haiei zer egin behar zuten esan beharrean, momentuan momentukoa egin genuelako. Liburu berriak zein apaletan utziko genituen erabaki genuen eta handik aurrera besteak bezain ongi zainduko genituela ere komentatu genuen, guztionak direlako liburu berri horiek.



➤ IKASLEAK JOAN ONDORENGO SENTSAZIOA:

Oso sentrazio onarekin geratu nintzen azken liburuak jasotzen, ikasleak oso gustura eta curiositate handiz ikusi nituelako eta oso saio polita izan zelako. Ori bai, ikasle gutxiago etorri ziren saio honetara, hamabost, eta liburutegia den leku txikiarekin lasaiago egon ginen.